

4 EURO • 2013KO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

**hh**  
**hik hasi**

**177**



**GAIA: LUZARO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLAK, 25 URTE • ELKARRIZKETA: AITOR MARTXUETA • PARTAIDETZA (VII) • IRAKASTE-METODOLOGIAK LANBIDE HEZKUNTZAREN ZERBITZURA • IPUINEN BITARTEZ HAUR TXIKIEKIN SEXUALITATEA LANTZEN • BEIZAMAKO ATERPETXEA • CASTILLO SUAREZ**



## Taupadak bilduma, inoiz baino gazteago, inoiz baino biziago!!!

### JOKIN DE PEDRO "Etsai gordea"

Josu Arriola kazetaria bere apartamentura sartu eta postontzitik, ezezagun baten gutuna jasotzen duenean hasten da istorio hau: "zure egunak zenbatuta daude, aurpegi faltsu hori ezabatuko dut albistegietatik; denak du bere ordaina".



### JOHN ANDUEZA "Kankaleko misterioa"

Kankal Kantauri itsasaldeko herri txiki polit bat da. Udan aldean jende asko biltzen da bertan. Amaia eta bere familia eta lagunak urtero joaten dira bertara. Uda honetan herri guztia asaldatuko duen gertaera bat izan da Kankalen: hilotz bat agertu da hondartzan.

### JASONE OSORO "Ezekiel noraezean"

Ezekielek 15 urte ditu, lagunarte jator bat, neska-lagun moduko bat... Bizitza zoriontsu hori aldatu egingo da, ordea, inoiz ikusi ez duen aita bat-batean agertzen denean.



# aurkibidea



**10**  
gaia

## PSIKOMOTRIZITATEKO FORMAZIOA

Hogeita bost urte egin ditu UNEDeko Luzaro psikomotrizitate eskolak irakasleen eta hezitzaileen formazioan laguntzen. Ehunka hezitzaile formatu dira bertan. Horietako bi dira Alvaro Beñaran eta Natividad Sanchez, gaur egun eskolako irakasleak. Haurrak hobeto ezagutzen ez ezik, hezitzaileek euren buruak hobeto ezagutu ditzaten ari dira lanean eskolan.



**16**  
elkarrizketa

## AITOR MARTXUETA

Eskoletan 'bullying' homofoboari aurre egiteko giltzarriak jaso ditu Aitor Martxueta EHuko irakasleak bere doktoradutza-tesian. Eskoletan aniztasun afektibo-sexuala "oinarritik" eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztien parte-hartzearekin lantzen hastea proposatzen du.

**5** editoriala

**6** hizpide izan da

**8** hizpide izango da

**10** gaia

## LUZARO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLAK

25 urte egin ditu

**16** elkarrizketa

**AITOR MARTXUETA.** EHuko irakaslea

**21** PARTAIDETZA (VII)

**28** ekarpenak

Irakaste-metodologiak Lanbide Heziketaren zerbitzura

**31** ekarpenak

Ipuinen bitartez haur txikiekin sexualitatea lantzeko proiektua

**35** galdeidazue

Haur eta gazteen kale-erabileraren datuek zer diote haien hizkuntza-ohiturei buruz? Miren Loinaz Garate, Izaro Susperregi

**40** nora joango gara?

Beizamako aterpetxea

**42** Atzeko atetik

Castillo Suarez. Idazlea

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA.** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko argazkia: Luzaro psikomotrizitate eskola. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2013-03-21). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Eman diezaiogun hezkuntzari **garrantzia**



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitez!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan,  
jardunaldietan eta argitararaten  
ditugun gainontzeko materialetan

**hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz**

<b>Izena</b>	<b>1. Deitura</b>
<b>2. Deitura</b>	<b>Telefonoa</b>
<b>Helbidea</b>	<b>Posta Kodea</b>
<b>Herria</b>	<b>Herrialdea</b>
<b>Lantokia</b>	<b>Lantokiaren herria</b>
<b>IFZ-NAN</b>	<b>Posta elektronikoa</b>

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<b>Entitate</b>	<b>Sukurtsala</b>	<b>K.D.</b>							<b>Zenbakia</b>
<b>Sinadura</b>									

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

**HARPIDETZA SARIAK**  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## apirila

### Egoera berrietan, irudimena eta inizatiba berriak



**Publiko izaera jabetzarekin baino parte-hartzearekin eta gertuko gestioarekin lotzea zuzena litzateke... Horrela, hezkuntza parte-hartzaile, bizi, kritikoa eta denontzako zerbitzua bermatzen duenean dei geniezaioke hezkuntza publikoa.**

Bi ekitaldi. Bata, Iruñean; bestea, Donostian. Bietan, hezkuntzaren gainean administrazioak hartzen ari diren neurriak kezka iturri.

Nafarroako haur eskoletakoek Nafar Gobernuak planteatzen duen dekretua arbuaitzen dute, lan-baldintzak okertzen dituelako, eta, ondorioz, haurren hezkuntzaren kaltetan doalako. Jardunaldi baten ostean, kontzentrazioa eta protesta egin zuten pankarta baten atzean jarrita.

Donostian, berriz, “Denon hezkuntza” eta “Hezkuntzan geu eragile” taldeak, kalejira baten deialdirako prentsaurrekoa egin zuten. Eta, prentsaurrekoan hauxe adierazi zuten: *“Bi taldeok, ikastetxeak eta bertako eragileak, bots, ikasle, guraso eta langile oro ditugu abiapuntu; euskal hezkuntza publikoaren kontrako murrizketak eta inposatu nahi duguten LOMCE legea ditugu borrokagai.*

*Biak ala biak zapuztuko dute gure hezkuntzaren kalitatea, enskalduntasuna eta herritarren aukera-berdintasuna; horren ordez merkantilismoa, errebalida, elitismoa eta espagnolizazioa inposatu nahi dizkigute.*

*Euskal herritarrek gara eta geure hezkun-*

*tzaren aldeko apustua egiten dugu. Hemen gauden ikastetxeetako eragileok ideologia anitzekoak izanik ere, aipatu aldarrikapen horiekin bat gatoz eta hezkuntza sektorea osatzen duten guztiak KALEJIR Arekin bat egitera gonbidatzen ditugu, apirilaren 20an, Donostiako Alderdi Ederren, musikaren, kantuaren eta bertsoen bidez geure hezkuntza eredu defendatzera.*

*Murrizketarik ez, LOMCEri ez! Euskal Herriaren hezkuntzaren alde”.*

Hik Hasi bi ekitaldietan egon eta bien kezka, protesta eta eskaerekin bat egin du. Izan ere, hezkuntza, zerbitzu publikoa dela ulertzen dugu, herritar guztioi dagokigun oinarritzko zerbitzua, unibertsala. Nola ez egon, bada, oinarritzkoak diren eskubideen defentsan?

Hezkuntza, denoi dagokigun eskubidea izateaz gain, norberarentzako eta jendartearentzako inbertsiorik onena dela uste dugu. Horregatik, hain garrantzitsua delako, ezin dugu, heziketa, administrazioen esku soilik utzi. Herritar guztion eskubidea da eta denoi dagokigu parte hartzea haren gestioan, lehentasunak finkatzean, antolatetan, garapenean, eta abarrean.

Publiko hitzak herrian ditu erroak, ez administrazioan, ideia hori oso zabalduta baldin badago ere. Administrazioak, herritarren ordezkari eta gestionatzaile gisa, herritarroi dagozkigun eskubideak bermatu egin behar ditu, nola ez, baina ez dagokio berari herritarren parte-hartzea eta erabakitze-ahalmena ordezkatea. Alderantziz baizik, bizitzen ari garen hain garai aldakorrean, herritarren parte-hartzea eta gertuko gestioa ezinbestekoak bihurtu dira, era eraginkorrean aurrera egin ahal izateko.

Ildo horretatik, oso interesgarriak dira herritarrek sortutako hainbat inizatiba. Izan ere, hezkuntza hobetzea dute helburu, edota, orain arte lortutakoa ez galtzea.

Hausnartzea, eztabaidatzea, eredu egokiak ezagutzea, besteekin partekatzea... birtarteko egokiak izan litezke, krisi garaioan, desanimoa ez erortzeko, ilusionatzen jarraitzeko, antolaketa era berriak bilatzeko, inizatiba irudimentsuak jorratzeko, eta abarrerako. Horri guztiari dei geniezaioke hezkuntza bizia, dinamikoa, kritikoa, denontzako zerbitzua eskaintzen duena, eta, ondorioz, hezkuntza publikoa.

# hizpide

## Bi ikasle deportaturi tutore lanak egiteagatik EHUko bi irakasle epaitu dituzte, eta ondoren absolbitu

Xabier Aierdi eta Enrike Antolin EHUko irakasleak Bilboko Auzitegian epaitu zituzten martxoan, bi ikasle deportaturi tutore lanak egiteagatik. Fiskalak zortzi urteko inhabilitazioa eskatu zuen bakoitzarentzat, prebarkazio administratiboa egitea leporatuta. Akusazio partikularrak berriz, bederatzina urteko inhabilitazioa eskatu zuen. Asociación de Víctimas del Terrorismo eta Voces Contra el Terrorismo elkarteak aritu ziren akusazio partikular. Epaimahaiak ordea, hiru eguneko epaiketaren ostean, absoluzioa ebazti zuen.

Bi irakasleek epaiketari onartu zuten Belen Gonzalez Peñalva eta Angel Maria Lete ikasleen tutore lanak ahalbidetu eta egin zituztela. Izan ere, biak EHU n matrrikulatuta zeudenez, edozein ikasle dituen eskubide berberak zituztela nabarmendu

zuten Aierdik eta Antolinek. Hortaz, beren eginbeharra bete besterik ez zutela egin adierazi zuten epailearen aurrean.

EHUko ordezkarien babes eta elkar-tasuna jaso zuten bi irakasleek auzitegian. Egungo errektore Iñaki Goirizelaia, Carmelo Garitaonandia errektoreordea eta Juan Ignacio Perez Iglesias errektore ohia alboan zituztela sartu ziren auzitegia, eta EHUko dozenaka irakasle txalo egin zieten.

Absoluzioaren berri izan ondoren, EHU “berrindartuta” atera dela adierazi zuen Xabier Aierdik, poza agertzeaz gain; haren ustez, “gure unibertsitateari min egin nahi izan diote, baina kriminalizazio ahaleginak ez du aurrera egin”. “Arrazoi juridikoa gailendu zaio arrazoi politikoari, eta uste dut hori dela elementurik garrantzitsuena”, gaineratu zuen Aierdik.

## Hizkuntza gutxituak, Frantziako hezkuntza erreformatik at

Frantziako Gobernuak hezkuntza erreforma arautuko duen hizkuntza egitasmotik kanpo utzi du hizkuntza gutxituen aipamena, eta egun duten estatus berean utzi ditu, inolako eskumenik aitortu gabe. Halaber, Euyropako Hizkuntza Gutxituen Ituna sinatzeari uko egingo dio beste behin, François Hollande presidenteak hauteskunde kanpainen kontrakoa agindu zuen arren.

Hizkuntza gutxituei emandako tratamendua hezkuntza erreformaren ahulguneetako bat dela azaldu dute Ipar Euskal Herriko diputatu eta senatariek. Haien iritziz, hizkuntza gutxituen alorrean urratsak emateko “aukera historikoa” galdu du Frantziako Gobernuak.

## Milaka lagunek hartu dute parte LOMCEren aurkako mobilizazioetan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan

LAB, EILAS eta ELA sindikatuek deituta, Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen hezkuntza erreformaren aurkako manifestazio jendetsuak egin zituzten martxoaren 2an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. LOMCE Hezkuntza Kalitate Hobetzeko Lege Organikoaren egitasmoari aurre egiteko “intsumisioa” aldarrikatu zuten hiru sindikatuek, eta euskal hezkuntza sistema propioaren beharra nabarmendu zuten. Hezkuntza errefor-

mak eskola kontseiluen parte-hartzea murriztuko duela, edukien zentralizazioa areagotuko duela eta emaitzei begirako kalitatea bultzatuko duela gaitzetsi zuten manifestazioaren deialdiarekin bat egin zuten eragileek (Sortzen Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak eta CCOO eta UGT sindikatuek).

Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta unibertsitatean Ikasle Aber-

tzaleak erakundeak deitutako greba deialdiarekin bat egin zuten Nafarroako milaka ikasle martxoaren 14an. IAren arabera, ikasleen erantzuna oso handia izan zen, batez ere unibertsitatean eta institutuetan.

Grebaz gain, manifestazio jendetsua egin zuten Iruñeko kaleetan, Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen hezkuntza erreformaren aurka. Manifestarien eta polizien arteko tentsio uneak izan ziren, eta gazte bat atxilotu zuten Iturrama institutuan. Manifestazioaren amaieran irakurritako agirian, Espainiako Gobernuak unibertsitateko tasak igo eta enpresei atea zabal nahi diela salatu zuen IAK.

# izan da



## 0-6 etaparen garrantzia nabarmendu dute ikastolen XX. Jardunaldi Pedagogikoetan

Martxoaren 13an eta 14an, Gasteizko Europa jauregian egin ziren Ikastolen Elkartearen XX. Jardunaldi Pedagogikoak. Aurtengo honetan 0-6 etapari eskaini zioten jardunaldia, *Handitzen handitzen hasi naiz handitzen* izenburupean. 0-6 etaparen barruan, 0-3urte bitarteko zikloak haurren garapenean zer nolako garrantzia daukan aldarrikatuz hasi zituen jardunaldiak Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak, Wert Espainiako Hezkuntza ministroaren hitzak —“0-3zikloa ez da hezkuntza, kontziliazioa baizik” esan zuen —gaitzetsiz. Arantza Aurrekoetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordearen hitzen ostetik, David Altimirrek eskaini zuen hitzaldi nagusia. Altimir Kataluniako Rosa Sensat elkarteko zuzendaritzako kidea da eta Haur Hezkuntzako maisua. Garaiak aldatu diren honetan, hezkuntza-ereduak ere aldatu beharko lukeela nabarmendu zuen, eta haurra erdigunean jarriko duen hezkuntza-eredua

aldarrikatu. Horretarako, hezitzailearen rola aldatu behar dela azaldu zuen. Ildo horretatik, Huhezi fakultateko Hazitegi ikertegiko koordinatzaile eta ikertzaile Alex Barandiaran eta Iñaki Larreak haurren garapen osasuntsua ahalbidetuko duen Haur Hezkuntza bat proposatu zuten.

Haurri entzutearen garrantzia azaldu zuen, hurrengo egunean, Josep Maria Artigalmaisú katalanak. Kasu honetan, hezkuntza bat ikasteko garaian, irakasleak ikasleari ahotsa eta ikusgarritasuna eman behar diola nabarmendu zuen. Ildo beretik jarraitu zuen Arantza Zugazagasti ikastolako irakasleak, ikasleek euskara ikasi ez ezik erabiltzeko irakasleek egin beharreko aldaketa zenbait mahai-gaineratu zituen, besteak beste. Jardunaldiak Karmele Perez Huheziko irakasl eta Miker ikarteldeko kideak itxi zituen, *Irakaslearen estrategia enpatikoak Haur Hezkuntzan abozko hezkuntza irakasteko eta ikasteko* izeneko hitzaldiarekin.

## Ongizatearen haurtzarora jardunaldia Nafarroan

0-3 urte bitarteko haurrekin lanean ari diren hezitzaileen hausnarketa jardunaldia egin zen martxoaren 23an Berriozarko auditoriumean.

Txusma Azkonak Europako ratio-irizpideak Nafarroakoekin alderatu zituen eta haur hezkuntzako kalitate-adierazleen gainean aritu zen.

Kristina Goñik Baztango haur eskolaren espazioen antolaketaz aritu zen, espazioa beste hezitzaile bat dela adieraziz.

Alfredo Hoyuelosek, bestalde, hezitzea une orotan aukerak eskaintzea dela zioen, haurren potentzialtasunak eta kompetentzia guztiak gara daitezten.

Aitor Burguete Buztintxuri haur eskolako gurasoaren iritziz, hezkuntza proiektua bertatik ezagutzeak, eta hartan parte hartzeak dituen onurez aritu zen.

Ana Gerendiain eta Kristina Goñi Berriozarko bi haur eskoletan sortzen ari den egoera berriaren gainean aritu ziren.

Aurezpen guztien ondoren, Nafarroako dekretu berriak dakartzan ondorioak hausnarketa- eta eztabaida-gai izan ziren.



# hizpide

## Herri hezitzailea, eskola herritarra jardunaldiak

Maiatzak 10-11 DONOSTIA



### ‘Herri hezitzailea, eskola herritarra’ jardunaldietan izena emateko epea zabalik dago

Apirilaren 26ra bitartean zabalik egongo da hik hasi-k antolaturiko ‘Herri hezitzailea, eskola herritarra’ jardunaldietan izena emateko epea, [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com).

Jardunaldiak maiatzaren 10ean eta 11n Donostiako Kursaal jauregian izango dira. Francesco Tonucci *Frato* pedagogo italiarra eta *Haurren Hiria* egitasmoaren sortzailea bi egunetan izango da gurekin. *Haurren hiria* liburua italiaratik euskarara itzuli egin da eta jardunaldietako parte-hartzaileei banatu egingo zaie. Bertan, haurretatik abiatuz, herritar guztien ongizatea bermatuko duen hiri-partehartzailearen eredia garatzeko pausoak azaltzen ditu.

Jardunaldietako lehen egunak *Heziketa ardatz duen herria* izango du mintzagai. Egun horretako hasiera-hitzaldia Lorea Agirre, MUko Sorguneak ikerguneko ikerlariak eskainiko du, *Umeen parte hartzea: Euskal Herritik begirada bat* izenburupean. Ondoren, Tonuccik *Haurren hiria*-z hitz egingo du. Hiriak haurren garapenean, autonomian, sozializazioan eta orobat heziketan duen garrantzia azalduko du Tonuccik. Jarraian, herrietako hainbat esperientzien berri jakiteko aukera izango da.

Larunbatean, ostera, *Herrira begiratzen duen eskola* izango da mintzagai. Egun horretan Koldo Telleria arkitektoak eskainiko du lehen hitzaldia, eta gero, Tonuccik *Guztientzako eskola* izeneko hitzaldia eskainiko du. Euskal Herriko hainbat ikastetxetako esperientziak ere ezagutaraziko dira.

Dagoeneko informazio osoa [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) webgunean dago ikusgai.

## Sarean dago Haur eta Gazte Literaturaren Dokumentazio gunea

Galtzagorriko orrialdean dagoen E.H.G. *Literatura* atalaren barnean aurki daiteke Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Dokumentazio Gune Digitala. Dokumentazio Gune honekin, besteak beste, orain artean Euskal Haur eta Gazte Literaturan zegoen hutsune handi bati egin nahi dio aurre Galtzagorri elkarteak: hain zuzen ere, Haur eta Gazte Literaturaren inguruan argitaratzen diren euskarazko kritika, liburu gida, bibliografia nahiz aldizkarien biltze lana egin nahi du.

Dokumentazio Gunean honakoa aurkituko du erabiltzaileak: kritiken hemeroteka, liburuengidak, Haur eta Gazte Literaturaren inguruko bibliografia eta aldizkarien mailegu zerbitzua.

## Heriotzak eskoletan duen trataerari buruzko lana irakurgai, sarean

[www.guretxikixak.com](http://www.guretxikixak.com) dolu perinatalari buruzko blogean irakur liteke Idoia Sara psikopedagogoak heriotzak eskoletan duen trataerari buruz egin duen ikerketalana. Sarak ondorioztatu du heriotza tabua dela askorentzat eta eskoletan ez dagoela heriotzari aurre egiteko baliabiderik. Irakasleei galdeketa egiteaz gain, haurrekin gaia lantzeko ipuinen bibliografia zabala eta metodologia prestatu ditu. Lanak Mondragon Unibertsitateko gradu amaierako proiektu onenaren saria irabazi du.



# izango da

## Euskararen ofizialtasunaren aldeko jaia egingo dute hilaren 21ean Nafarroako Villatuerta herrian



Nafarroako Vasuencearen legeak eta zonifikazioak herritarrengan, eta, bereziki, ikasleengan eragiten dituen eskubide urraketak azaltzeko eta, haiei aurre egiteko, euskararen ofizialtasunaren aldeko jaia

egino dute Nafarroako Villatuerta herrian, apirilaren 21ean. *Euskararen herria josten* leloarekin egingo dute aurten jaia. Jai horren bidez, ikusarazi nahi dute gaur egun 1.400 umetik gora direla egunero 20 kilometrotik gorako joan-torriak egin behar dituztenak euskaraz ikasi ahal izateko. Ume guztien artean, 5 milioi kilometro baino gehiago egiten dituzte urtean, hau da, ilargira 13 bidaia. Era berean, kilometro horien kostuei aurre egiteko, haur bakoitzeko 540eurotik gora gastatu behar dituzte.

Zonifikazioa amaitzeko, Vasuencearen legeak ezartzen duen errealitate hori salatzeko eta ikasle eta gurasoei babes emateko antolatuta du jaia Sortzen Ikasbatuazek.

## Uztailaren 3, 4 eta 5ean izango dira hik hasi-ren Udako Topaketak

XIV. Udako Topaketak egingo ditu aurten hik hasi euskal hezkuntzarako egitasmoak, uztailaren 3, 4 eta 5ean. Aurten, ostera, Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako campusera itzuliko dira topaketak, Pedagogiako fakultatean egingo baitira aurten ikastaroak, EHUK eta hezkuntza egitasmo honek sinatutako akordioari esker. Ikastaroei buruzko informazio osoa apirilaren amaieran zintzilikatuko da webgunean eta argitaratutako aldizkarian. Era berean, izena emateko epea, ohi bezala, maiatzaren 1ean zabalduko da.



## LOMCEren eta murrizketen aurkako kalejira egingo dute, Donostian, apirilaren 20an

"Hezkuntzan geu eragile" eta "Denon Eskola" hezkuntza taldeek deituta, apirilaren 20an kalejira bat egingo da Donostian "Murrizketarik ez! LOMCEri ez" izenburupean. Euskal hezkuntza publikoaren kontrako murrizketak eta Espainiako Hezkuntza ministro Wertzen LOMCE legearen kontra egingo dute kalejira horrekin. "Biek ala biek zapuztuko dute gure hezkuntzaren kalitatea, euskalduntasuna eta herritarron aukera-berdintasuna; horren ordez, merkantilismoa, errebalida, elitismoa eta espainolizazioa inposatu nahi dizkigute", adierazi zuten kalejiraraen deitzaileek, martxoaren

25ean Donostian egin zuten agerraldian.

Murrizketen eta Wertzen legearen aurrean, "euskal hezkuntzaren aldeko apustua" egiten dute deitzaileek. "Hemen gauden ikastetxeetako eragileok ideologia antzekoak izanik ere, aipatu aldarrikapen horiekin bat gatoz, eta Hezkuntza sektorea osatzen duten guztiak kalejirarekin bat egitera gonbidatzen ditugu". Kalejira Donostiako Alderdi Ederren abiatuko da.

ELA, LAB, STEE-EILAS eta CCOO sindikatuek, Sortzen-Ikasbatuazek eta Hik Hasik bat egin dute deiarekin.

# GAIA

## Luzaro psikomotrizitate eskolak 25 urte egin ditu



Luzaro Psikomotrizitate Eskolaren XVIII. promozioiko diploma banaketa. Hizketan, Manolo Cainzos Psikopedagogiako koordinatzailea. Argazkiak: Luzaro



**Hogeita bost urte egin ditu UNEDeko Luzaro psikomotrizitate eskolak irakasleen eta hezitzaileen formazioan laguntzen. Hiru arlotan banaturiko prestakuntza integrala eskaintzen du Luzarok: teorikoan, praktikokoan eta pertsonalean. Azken hori da Luzaroren berezitasunetako bat. “Uste dugu zenbait ideia ezin direla teoriaren bidez bakarrik transmititu, baizik eta pertsonak bizi egin behar ditu benetan integrazeko, eta ondoren bere lanean esperimentatzeko”. Haurrekiko eta helduarekiko errespetuan, autonomian eta gaitasunetan oinarritutako prestakuntza jorratzen du Bergarako psikomotrizitate eskolak, eta koherentzia da bere jardunaren hitz klabea: psikomotrizitate gelan haurra ulertzeko eta aztertzekeo jarrera bera aplikatzen du ikasleen formazioan. Alvaro Beñaran eta Natividad Sanchez Luzaroko irakasleekin mintzatu gara.**

**G**

Bergarako UNED Espainiako Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitatearen babespean sortu zen Luzaro psikomotrizitate eskola, 1987. urtearen bukaeran. Urtebete lehenago, Euskal Herria, Madril,artzelona eta Murziako zenbait hezitzaile elkartzen hasi ziren (Juanjo Quintela, Luis Mendez, Miguel Dominguez Sevillano, Mari Jose Insausti, Margarita Aresti eta Maria Jesus Uranga) eta Bernard Aucouturier frantziarraren psikomotrizitate praktiketan oinarritutako eskolaren proiektua landu zuten. Eusko Jaurlaritzari eta UNEDeko zuzendaritzari aurkeztu zieten egitasmoa 1987ko uztailean, eta hilabete geroago Asefop elkarteak (Psikomotrizitate Praktikorako Europarako Eskolen Elkarte) proiektua aintzatetsi zuen. Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez zuen erantzunik eman, baina hala ere, hezitzaileek eta UNEDeko zuzendaritzak proiektuarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten, aurrekontuetan aldaketa nabarmenak eginda. Hiru sentsibilizazio ikastaro antolatu zituzten, bi urteko ikastaroa hasi baino lehenagoko urrats gisa, eta 1988ko urtarilean bi urteko lehen ikastaroan izena emateko epea zabaldu zuten. Luzaroren lehen promozio hartako ikasleen artean, Alvaro Beñaran eta Natividad Sanchez zeuden. Geroztik, Luzarori lotuta daude biak: Sanchez koordinatzaile lanetan aritu da hainbat urtez eta Beñaran irakasle da 1994az geroztik.

Egonkortasuna eta “nolabaiteko ofizialtasuna” lortu ditu Luzarok 25 urte hauetan. Izan ere, psikomotrizitate titulu ofizialik ez dago Espainiako Estatuan, ez da existitzen psikomotrizista profesionalaren figura, baina hori ez da arazo izan urtero formakuntza jaso nahi duten ikasleen “eskaera handia” izateko—hala ere, 72 ikaslerentzako tokia baino ez dago, prestakuntza behar adina kalitatearekin egin ahal izango dela bermatzeko—. Luzarora jotzen duten ikasleak “ez dira titulu bila etortzen, formazio bila baizik”, azpimarratu du Sanchezek. Bestalde, hezkuntza mailan eta instituzioen aitortzaren aldetik “gure praktika i-ia ofiziala da”, dio Beñaranek, “Euskal Herriko esko-

letan psikomotrizitateaz hitz egiten denean gure praktikaz hitz egiten da, eta diputazioetan eta udaletan, zailtasunak dituzten haurrekin lan egiteko profesionalak eskatzen dituztenean, gure praktiketan formatutako profesionalak izaten dira askotan”.

Mende laurden honetan, gizartea eta ikastetxeetako errealitatea asko aldatu arren, Bertrand Aucouturierren marko teorikoari eutsi dio Luzarok—Aucouturier bera psikomotrizitate eskolaren zuzendari zientifikoa izan da duela hiru urtera arte—, estrategia berriak sartu dira, baina printzipioak gorde ditu. Egonkortasun hori harro egoteko modukotzat hartzen dute Beñaranek eta Sanchezek; izan ere, hezkuntzan azken boladako korrante teorikoen menpe aritzeko joera oso zabaldua dagoela uste du Beñaranek. “Hezkuntzan aldi aldiko korranteak sarri etortzen dira, eta benetan ulertu eta behar den bezala aplikatu gabe gainditzen dira. Kasu gehienetan sinplifikazioak egiten ditugu, besteek esandakoetan oinarriturik. Sakontasuna falta da”.

Juan Jose Alvarez UNEDeko zuzendari ohiak hasieratik emandako babesa eskertu dute Beñaranek eta Sanchezek. “Beti esaten du Psikomotrizitate Eskola dela UNEDen bandera-ontzia”. Iñaki Esparza UNEDeko egungo zuzendariak, Manolo Cainzos Psikopedagogiako koordinatzaileak eta UNEDeko Idazkaritzako langileek eskolaren alde egindakoa ere nabarmendu dute. Gaurko egunean, haurren hezkuntzako alorrean ari diren taldeen aldetik, batez ere ikastetxeetatik, eskaera handia dago umeen heldze-prozesuan psikomotrizitateak duen garrantzia ulertzeko eta garatzeko. Hori dela eta, urteak igaro ahala beste hainbat jarduerak antolatzekeo eta prestakuntza dibertsifikatzeko erabakia hartu dute Luzaroko arduradunek. Horien artean azpimarratzekoak dira Etengabeko Prestakuntza ikastaroak eta bi urtez behin antolatzen dituzten Jardunaldiak, hezkuntzako psikomotrizitate-praktikak bukatu dituzten ikasleen beharrak asetzeko sortutakoak. Halaber, *Cuadernos de Psicomotricidad* aldizkaria argitaratzen dute, ikastetxeentzat aholkularitza lana egi-



# Luzaro psikomotrizitate eskola



UNEDeko Psikomotrizitate Eskolaren lehen promozioiko ikasleak eta irakasleak, norbere diplomarekin.

ten dute, eta lankidetzaz jorratzen dute Asefopen barruan dauden beste herrialdeetako eskolekin. Halaber, prestakuntza modulo berri bat zabaldu zuten 2005ean, zailtasunak dituzten haurrekin lan egiteko psikomotrizitate laguntzako.

## Haurren prozesua

Duela hogeita bost urte ez bezala, psikomotrizitateaz asko hitz egiten da gaur egun, eta nolabaiteko adostasuna dago “umea globaltasunean hartzen” duen praktika gisa definitzerakoan, baina definizio hori praktikara eramateko joera ezberdinak daude. “Helduaren ikuspegitik, haurra bere osotasunean errespetatzean” datza psikomotrizistaren lana, dio Beñaranez. Luzaroko irakasleei “haurren heldutasun psikologikoaren prozesua” interesatzen zaie. “Haurrak heldutasun psikologikorako prozesu bat egiten du bizitzan. Hasieran organismo bat da, garatu ahala psikismoa sortuz joaten da eta harremanak direla medio heldutasunera iristen da maila afektiboan, kognitiboan eta fisikoan. Prozesu hori interesatzen zaigu, badakigulako zailtasunak izaten direla prozesu horretan, haurrek larritasu-

nak eta angustiak bizi dituztela, norberak bere buruarekikoak zein besteekikoak (atxikimendua, banaketa...). Larritasun horien aurrean bere burua ziurtatzeko baliabideak sortzeko aukera bat eskaintzen dio psikomotrizitateak haurran”. Baliabide horiek sortu ahal izateko ingurugiro bat eskaintzen diote haurrari, denbora bat, espazio bat, material bat eta heldu bat jartzen dituzte haurren eskura, baina “ez dugu haurra zuzentzen, ez diogu irakasten nola sortu baliabide horiek”, zehaztu du Beñaranez. “Gure metodologian oinarrituta, bere historia behatu eta aztertzen dugu”, erantsi du Sanchezek. Haurren eta helduaren arteko harremanean oinarritutako metodologia da, ez teknikan.

Luzaroko irakasleen psikomotrizitate saio bakoitzak ibilbide bat du, norabide batekin: sentsazioetatik pentsamoldera. Hasieran, gorputzean eta sentsazioetan zentratzen dira haurrak: koltxonetan bota, erori, txiribueltak egin, korrika... “Haurra gorputzean ondo sustraitzea” dute helburu praktika horiek, “gure hipotesia baita gorputzean grabatuta daudela norberaren historia, afektuak... Horiek ukitzean hasten di-

ra konektatzen irudiak. Sentsazio eta emozio horiek irudiekin integratzea nahi dugu, eta hori lortzen bada, haurra jolasten hasten da, espazioa eraikitzen eta maila sinboliko ezberdinetan gora eta gora egiten. Eta buka dezake pentsamenduan, hitzen alorrean eraikuntzak egiten”. Ibilbidean zehar haurrek erakusten dute nola aurkitzen diren, eta psikomotrizistek lagundu egiten diete, “ahal dugun neurrian”, ondo egoten eta aurrera egiten, baina beti “plazeraren bidez eta haurrek eurek erabakita”, adierazi du Sanchezek. Saioaren amaieran, sentitu eta jolastu ostean, errepresentazio txokoan esertzen dira; lasaitasunerako momentua da. “Emozionalki lasai sentitzen direnean gai dira ipuin bat entzuteko edo kontatzeko, marrazteko, hitz egiteko, plastilina lantzeko...”. Prozesu osoan helduak hartzen duen jarrerari funtsezko garrantzia ematen diote Luzaroko irakasleek: “gai izan behar du umea behatzeko eta ulertzeko, eta hor sartzen da jokoan helduaren prestakuntza”.

Luzarok eskaintzen duen bi urteko ikastaroak prestakuntza teorikoa, praktikoa eta pertsonala barnebiltzen du. Azken hori, prestakuntza pertsonala, Luzaroren berezi-



tasunetako bat da sorreratik. “Oso inportantea da helduak haurrekin dagoenean ondo bereiztea zer den haurrarena eta zer den berea. Jakin behar du non dituen hutsu-neak, non dagoen gustura, zer nolako haurrekin identifikatzen den gehiago, zer nolako haurrak ez dituen onartzen... Horretarako, alegia, bere lana hobeto bideratzeko, beharrezkoa du prestakuntza pertsonala. Zenbait ideia ezin dira teoriaren bidez bakarrik transmititu, bizi egin behar dira benetan barneratzeko eta norbere lantokian esperimendatzeko. Esaterako, gerta daiteke pertsona batek enpatiar buruzko teoria guztiak ezagutzea baina pertsona bera enpatikoa ez izatea. Guri interesatzen zaiguna da ikustea ea pertsona hori gai den umearekin enpatizatzeo eta umearen irakurketa egiteko. Beste horrenbeste esan daiteke errespetuaz. Horrelako baloreak ezin dira ahoz transmititu, bizi egin behar dira”.

### Zer egin eta nola egin

Aldi berean, elkarri lotuta, eta batetik besterako joan-etorri etengabea garatzen dituzte prestakuntza pertsonala, teorikoa eta praktikoa. “Teoria inportantea da baldin eta laguntzen badigu haurrekin bizi duguna argitzen. Ez dugu teoria plazer intelektualerako bakarrik nahi, praktikan aritzeko teoria interesatzen zaigu. Ez da hain inportantea esaten duzuna, egiten duzuna eta nola egiten duzun baizik”. Nola egin horretan, helduaren autonomia ardatzean jartzen du Luzarok. Izan ere, ñabardura garrantzitsua egin du Beñarak: Luzarok ez ditu pertsonak formatzen, “haien formazioan lagundu egiten du. Ez diegu esaten zer dagoen ondo eta zer gaizki, horrek guretzako baliorik ez duelako. Prozesua da balio duena: helduari ispilu bat jartzen diogu, bera transformatzeko eta aurrera egiteko”. Alegia, psikomotrizitate gelan hurrekiko duten ikuspegiarekin koherentea den jarrera aplikatzen dute helduaren formazioan. Formazio ins-

truktibista baztertzen du.

Hortaz, hasiera ez da erraza izaten ikasleentzat. “Inseguritatea” egon ohi da abiapuntuan, harridura ere bai, “eta gure eginkizuna da pertsona seguru sentiaraztea, baina ez zuzentzen, baizik eta bere buruari eusten. Donald Winnicotten esaldi famatua (amak eusten dio umeari, nork eusten dio amari?) gurera ekartzen dugu: profesionalak (psikomotrizista, hezitzailea...) eutsi behar die hurrei, baina nork eusten dio profesionalari?”. Izan ere, haur txikiekin egindako lan pertsonala “lan zaila” dela dio psikomotrizista eta pedagogo terapeutak: “Umei gertatzen zaizkien gauzek zerikusi handia dute norbere historiarekin, norbere sustaiekin, eta emozionalki asko ukitzen dute heldua. Hortaz, hurrekin lan egiten duenak oso ondo egon behar du emozionalki, ondo eutsita, bere burua ondo ezagutu behar du. Gu saiatzen gara helduak ondo estrukturatzen, ahalik eta lasaitasun handienaz egin dezaten beren lana”.

Gizartean eta hezkuntzan nagusi diren ikuspegiak eta joerak bestelakoak dira ordea, “zuzentzera eta eztabaidatzera jotzen dugu, eremu horretan seguruago sentitzen garelako”. Aldiz, Luzaroren lan egiteko moduak ahalegin bat eskatzen dio ikasleari, “tentsio jasangarriari eusteko prest egon behar du, etengabe gogoratu behar ditu zeintzuk diren gure printzipioak, hala ez bada zailtasunak agertzen direnean oso erraza delako beste jarrera bat hartzea”. Bizi duten esperientziak barruak mugiarazten dizkie sarri, eta haurra ikusteko eta harekin lan egiteko moduan ez ezik maila pertsonalean ere aldaketak ekartzen dizkie. “Maiz esaten digute formatzeaz gain bizitza pertsonalean transformazioak sumatu dituztela, baita hezitzaile gisa. Haurra hobeto ezagutzeko ez ezik eurak aldatzeko ere balio izan die prestakuntzak”, dio Sanchezek. “Jendea ez da gehiago gustura sentitzen besteak zuzentzen”, gaineratu du Alvaro Beñarane.



“Haurrari gertatzen zaizkien gauzek emozionalki asko ukitzen dute heldua. Beraz, bere burua ondo ezagutu behar du hurrekin lan egiten duenak”  
-Alvaro Beñarane-

“Ikasleek maiz esaten digute haurra hobeto ezagutzeko ez ezik, eurak ere aldatzeko balio izan diela ikastaroak”  
-Natividad Sanchez-



# Luzaro psikomotrizitate eskola

Bere sorreratik hainbat printzipiorekiko atxikimendua du gorde du Luzarok. Horietako lehenengoa, errespetua da, haurrari zein helduari. “Argi daukagu pertsona bakoitza seguru sentitu behar dela, ez arriskuan. Guk pertsonari laguntzen diogu egoera horretatik ateratzen, izan haur izan heldu. Horretarako, gure protokoloak ditugu: ikuskapenak egiten ditugu, elkarrizketak talde txikitetan...”.

Autonomia da beste printzipioetako bat. “Pertsonak bere burua transformatzeko duen gaitasuna interesatzen zaigu; ikastaroan erakusten badu gaitasun hori, guretzat nahikoa da”. Bestalde, ez dute epairik ematen, ezta ebaluaketarik egiten ere. “Guk jarrera bat transmititzen dugu, ez iritzi bat; pertsonak sentitu behar du aurrera egiteko bide bat daukala. Ez du zertan egiten duena kopiatu behar; probatu, aldatu, esperimentatu behar du, zentzudun jokatu”. Azkenik, pertsonaren gaitasunari erreparatzen diote Luzaron, ez zailtasunei. “Elkarrizketetan ikasleei egiten diegun lehen galdera da nola sentitu den, nola ikusten duen bere burua... Pertsonaren gaitasunak ikusi eta azaleratu nahi ditugu, hark bere erantzunak aurkitu ahal izateko”.

Ikastaroan izena eman ahal izateko, ikasketak bukatuta edukitzea eta gutxienez 3 urteko lan esperientzia izatea eskatzen dute. Horrez gain, prestakuntza hasi aurretik sensibilizazio ikastaroa egin behar dute ikasle guztiek, prestakuntzaren nondik norakoa jasotzeko eta egon litezkeen zailtasunak argitzeko.

Lehen ikasturtean, haurraren behaketa da ardatza. Luzaroko irakasleek psikomotritzitatea lantzen duten lekuetara joaten dira ikasleak eta ikusten dute nola egiten duten lan. “Gu ez gara teorikoak, gu praktikan ari gara, lanean, eta ikasleek ikusten gaituzte, ez dugu ezer ezkututzen. Horrek garrantzia du, ikusten dutelako ez dagoela uniformitaterik gure artean, printzipioetan bat gatozela baina psikomotritzitatea lantzeko oso esti-



Alvaro Beñaran pedagogo terapeuta eta Luzaroko irakaslea, psikomotritzitate saio batean.

lo ezberdinak daudela. Horrek segurtasun eta askatasun handia ematen die ikasleei, ohartzeko dira beraiek ere sor dezaketela”.

Bigarren ikasturtean, praktika autonomoak egin behar dituzte ikasleek, euren lantokietan, eta irakasleak dira joaten direnak gainbegiratzea *in situ* egitera. Ikasleek erabaki propioak hartu eta esperimentatzeko momentua izaten da. “Guk aholkatzen diegu lehen urtean ortodoxoak izatea, eta prozesu bat egin ostean hasia probatzen eta autonomoak izaten. Halaber, estrategia berri bat aplikatzen dutenean, baloratu behar dute lortzen dena gure printzipioekin koherentea den, alegia, ea erabakitako estrategia horrek autonomia ematen dion haurrari”.

Beñaranek aitortu duenez, askotan “irakasleak baino hobeto” asmatu egiten dute ikasleek euren erabakietan.

Ondoren dator praktiken memoria aurkeztea ikasle bakoitzak. “Memoria horretan ikusten da zein den ikaslearen egoera maila pertsonalean zein umearekikoan. Prozesua integratzen, azaltzen, bere lanarekiko distantzia hartzen eta gogoeta egiten kapaza dela erakusteko momentua da; bizitako esperientziari hitza jartzen dio”. Horrekin nahikoa izaten da, ez dago ebaluaketarik, ez dago notarik. Beñaranek berriz gogoratu duenez, “guk ez dugu epaitzen, ez dugu esaten zer dagoen ondo eta zer gaizki; guretzat prozesua da balio duena”.



## “Irtenbide perfektua” eman ordez, gurasoei kompetenteak izaten lagundu

Hezkuntzaren esparruan egun premiazkoa den behar bati erantzuteko, prestakuntza-modulu bat eskaintzen du Luzarok 2005. urteaz geroztik. Heltze-prozesua modu orekatuan egiteko zailtasunak dituzten umei psikomotrizitatearen bidez laguntzeko aukera jartzen dute gurasoen eskura. “Psikomotrizitate gelan ebaluaketa bat egiten dugu, haurra globaltasunean hartzen dugu, zertan lagundu dezakegun aztertzen dugu, eta ikusten badugu haurrak bide bat egin dezakeela gelan eta gurasoak prest baldin badaude, aurrera egiten dugu”, azaldu du Nati Sanchezek.

Zailtasunak gainditzeko baliabideak sortzeko ezintasunen bat duten umeak eskolaren esparruan hauteman daitezke. “Ezintasun hori mota askotakoa izan daiteke: organikoa, harremanetarakoa... Kasutan, haurra blokeatu egiten da, ezin du baliabiderik sortu, eta lan espezifikoa egin behar da harekin. Haurraren mundu arkaikoan sartzen gara orduan, bizitzaren hastapen-tara joaten gara”, azaldu du Alvaro Beñaranek.

Zailtasunak dituzten haurrek ezaugarri komun batzuk dituzte. “Sinbolizazio zailtasunak dituzte (hori argi ikusten da jolasterakoan, arazoak dituzte), komunikazioan zailtasunak... Esan daiteke haur horiek ezin izan dutela *bestea* eraiki behar den bezala, arrazoi batengatik edo bestearengatik *bestea* beren bizitzan ez da agertu behar den bezala”. Luzaroko psikomotrizisten zeregina *bestea* eraikitzea da, “saiatzen gara haurrarentzat *bestea* izaten, sinbolizatzeko aukera ere irekitzen. Hori da gure funtsezko lana”. Ez dira sintometan oinarritzen. Esaterako, haur batek hitz egiteko arazoak baldin baditu, logopedara eraman aurretik arazoaren muina non dagoen aztertu beharra dagoela uste dute. “Komunikazio arazoak egon daitezke ezintasun horren muinean, eta horiek



Alvaro Beñaran eta Natividad Sanchez, Luzaroko kideak.



desataskatu beharra dago lehenik eta behin. Haurraren komunikatzeko gogo piztu behar da, eta hori lortu ondoren, seguruenik, logopedarengana eraman beharko da, hitz egiten ikasteko”.

Izan ere, psikomotrizistaren esku-har-

tzea nahikoa izaten da batzuetan, baina beste batzuetan espezialista batengana jo beharra dago. Alde horretatik, “oso inportantea da gurasoei espektatiba faltsuak ez ematea, argi adieraztea zer egin dezakegun eta zer ez”, azpimarratu du Beñaranek. Izan ere, sarri “irtenbide perfektuaren bila” joaten dira gurasoak haiengana, “baina guk ez diegu hori eman behar, beste zerbait baizik: sinestarazi behar diegu eurek ere badutela erantzun egoki bat”. Psikomotrizitate gelan haurrekin eta prestakuntza ikastaroan helduekin izan ohi duten jarrera bera izaten dute gurasoekiko harremanetan. Berriz ere, koherentzia da hitza. “Kompetenteak izaten laguntzen diegu, segurtasuna eta autonomia ematen saiatzen gara, errespetuz tratatzen...”. Gaur egungo gurasoengan, “hauskotasuna eta inseguritatea” antzematen dituzte Beñaranek eta Sanchezek.

# aitor martxueta



## ELKARRIZKETA

**EHUko irakaslea eta 'Hezkuntza-ingurunean dibertsitate afektibo-sexuala aintzat hartzeko giltzarriak' doktoradutza-tesiaren egilea**

**“Homofobiaren eta bazterketaren aurkako politikak diseinatu eta aplikatu behar dituzte ikastetxeek”**



**Escoletan ‘bullying’ homofoboari aurre egiteko giltzarriak jaso ditu Aitor Martxueta EHUko irakasleak bere doktoradutza-tesian. Mota horretako jazarpenak ikasleengan luze irauten duten ondorio psikologiko larriak (depresioa, antsietatea...) eragin ditzakeela ohartarazi du, eta arriskuari aurre egiteko, escoletan aniztasun afektibo-sexuala “oinarririk” eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztien parte-hartzearekin lantzen hastea proposatzen du. Ikastetxeetan indarrean jartzeko neurri zehatzak aipatzen ditu Martxuetak bere tesian: diskriminazioaren aurkako planak diseinatzea eta eskolako maila guztietan ezartzea; irakasleei eta gurasoei homofobia identifikatzeko eta hari aurre egiteko formakuntza ematea; aniztasun afektibo-sexualarekin lotutako edukiak zeharka txertatzea curriculumean eta material didaktikoetan; eta LGTB elkarrekin elkarlanean aritzea, besteak beste.**



### **Deskriba dezagun lehenik eta zer den ‘bullying’ homofoboa.**

Hainbat pertsonaren artean sortzen den botere-egoeratik abiatuta, ahulagoa den edo ustez ahulagoa den pertsona bati egiten zaion jazarpena da *bullying*-a. Jazarpen hori egin daiteke begiradaren bidez, irainen bidez edota eraso fisikoen bidez. *Bullying* homofoboa da pertsona bati bere orientazio afektibo-sexualarengatik edo genero-estereotipo arau-emailetan sartzen ez delako egiten zaion jazarpena.

### **Erraza da antzematen?**

Ez, ez da erraza, arrazoi zehatz bategatik: ikastetxeetan ez delako aniztasun afektibo-sexuala lantzen. Horren ondorioz, hainbat jazarpen-egoera onartuta daudela ematen du, jazarpena jasaten dutenek zein egiten dutenek uste dute gauza normala dela. Zergatik? Irain homofoboak—esaterako, *maritxu* edo *marikoi* deitzea mutili—gizartean onartuta daudelako: txantxa egiteko erabiltzen dira, abestietan... Jendeak normal hartzen du, ez du uste irain hori jazarpen mota bat denik, eta horregatik da hain zaila detektatzea. Jazarpen homofoboari aurre egiteko oinarririk abiatu beharko genuke, ikastetxeetan aniztasun afektibo-sexuala lantzetik.

### **Matxismoarekin antzera gertatzen da, normalizat ematen direla hainbat joera sexista.**

Bai. Argi dago homofobia eta sexismoa elkarrekin doazela. Heterosexuala ez denak edo gizartean ezarritako maskulinitatetik kanpo dagoenak jazarpena jasaten du. Hori dela eta, mutilek jasaten dute gehiago jazarpen mota hau neskek baino. Maskulinitate horretatik kanpo dagoenari jo egiten zaio.

Kasu askotan, jazarriak izan direnak ez dira homosexualak, baina ez dituztenez betetzen genero-estereotipo arau-emaile horiek, jazarpena egiten zaie. Horrek zerikusia du sexismoarekin.

Nesken kasuan, maskulinoagoak direnek—hau kontuz hartu behar da, zeren aurretik zehaztu beharko genukeen zer den maskulinoa eta zer femeninoa—, esaterako futboleko jokatzeko dutenek, ez dute hain jazarpen gogorra jasaten. Batetik, mutilek onartu egiten dutelako neskek eremu horretan sartzea; baina, bestetik, neskek ez dituztelako maskulinoagoak diren neskek onartzen, eta bai, ordea, gay mutilak edo estereotipoetatik kanpo dauden mutilak. Mutilen kasuan, alderantziz gertatzen da, neska “maskulinoak” onartzen dituzte eta mutil “femeninoak” ez.

### **Neskek ere barneratuta dituzte gizarteko estereotipoak?**

Tesian ez dut horri buruzko pisuzko azalpenik ematen, baina genero-estereotipoen heziketarekin lotuta dago. Neskek baliu batzuetan hezten dituzte, eta mutilak beste batzuetan. Horrela esanda, badirudi jarraitzen dugula beste garai historiko batean, baina egoera asko aldatu da. Gaur egun, patioan mutilak eta neskek elkarrekin jolas ten dira sokasaltoan edo futboleko. Baina zenbait une puntualetan, femeninoagoak diren edota futbola gustatzen ez zaient mutilek jazarpena jasaten dute. Batez ere, Bigarren Hezkuntzan gertatzen da; adin horretan hasten da pertsona bere sexualitatearekin identifikatzen, eta orduan hasten dira arazoak.

### **‘Bullying’ homofoboak ondorio larriak eta iraupen luzeak izan ditzakeela nabarmentzen duzu tesian. Gizartea gertaera horien larritasunaz ohartarazi nahi izan duzu?**

Nazioartean ez dago ikerketa askorik atzera begirako *bullying* homofoboaz, baina, daudenetan, argi ikusten da iraganean jazarpen mota hori jasan dutenek ezinegona eta larritasuna sentitzen dituztela hura oroitzean. Erresuma Batuan, Ian Rivers izan da ikerketa mota hori aurrera eramane duena, eta haren lanek erakusten dute jazarpenaren

# aitor martxueta

E

“Ikastetxeak ikasle guztien segurtasuna bermatzeko eginbeharra du. Ez badu egiten, legea urratzen ari da

“Gurasoek eta irakasleek homofobiari aurre egiteko formakuntza jasotzea beharrezkoa da, baita LGTB gaiak eskola-curriculumean zeharka txertatzea ere

ondorioek irauten dutela eta jazarrien ongizate psikologikoan eragiten dutela: depresio- eta antsietate-maila altuagoak dituzte helduaroan, 12-14 urterekin nozitutako jazarpenaren ondorioz. Nire ustez, oso larria da.

Eragin psikologikoez gain, beste ondorio batzuk ere ekartzen ditu jazarpen homofoboak: eskolan huts egitea, emaitza akademikoko txarrak... Alegia, jazarpen horrek ikaslearen etorkizun profesional eta akademikokoan ere ondorio negatiboak ditu. Hori horrela izanda, jakin behar dugu ikastetxetan gaia nola landu. Izan ere, ikastetxeak betebeharrak du legez: zentro horretako ikasle guztien segurtasuna bermatzea. Hori ez badu betetzen, legea urratzen ari da. Hori ez dugu ahaztu behar.

**Baina aniztasun afektibo-sexuala ez da lantzen eskoletan, eta, tesian diozunez, heteronormatibitatek ateratzen diren ikasleak “ez dira errespetatuak, ez onartuak, ez kontuan hartuak”.**

Aniztasunaz hitz egin beharko genuke, orokorrean, baina jazarpen mota hau espezifikoa da, eta ikerketek diote mota honetako *bullying* kasuak direla gehienak. Ikastetxeak betebeharrak du: ikaskuntza-testuinguru seguruak eskaini behar dizkio ikasleari. Behin galdetu zidaten ea jazarpen mota hau jasan duten ikasleek gurasoek ikastetxea salatu beharko luketen. Nire ustez, gurasoek saiatu beharko lukete ikastetxearekin hitz egiten, eta zuzendaritzak eta irakasleek gaia landu beharko lukete ikasleekin. Neurriak hartzen badira eta gaia lantzen bada, neurri gehiago hartu beharko ez den une bat iritsiko da.

Irakaslearen betebeharra da, ideologiak ideologia, ikasgelako ikasle bakoitzaren errealitatea kontuan hartzea eta zaintzea. Horrela ulertu behar da haien lana. Ez dezagun ahantzi: arazo psikologiko larriak eta, areago, ikaslearen suizidioa ere ekar ditzakeen jazarpen mota batez ari gara. Nork arduratu behar du horretaz?

**Gay eta lesbianen eskubideen aldetik berdintasunerantz ematen diren lege-aurrerapausoek oihartzun handia izan dute gizartearen eta komunikabideetan, baina**



**jazarpenak eta erasoak itzalean gelditzen dira sarri, ez dira azaleratzen.**

Ikastetxean jazarpena jasaten duen 14-15 urteko mutil batek nori kontatu behar dio gertatzen ari zaiona? Lotsaren faktorea sartzen da jokoan, gurasoei, lagunei, irakasleei kontatzeko lotsa. Gauza bera gertatzen da familietan, gertatutakoa komunikabideetara zabaltzeko orduan. Ez dute gustuko publiko egitea. Baina uste dut garrantzitsua dela zabaltzea, gizartea kontzientziatzeko. Indarkeria matxistarekin hori gertatu da. Duela urte batzuk ez zen asko entzuten, baina hasi zirenean datuak zabaltzen, jendea kontzientziatzen hasi zen. Eta prebentzio-neurri asko hartzen hasi ziren. Baina ulertzen dut erasoak jasan duenarentzat zein familiarentzat zaila izatea gertaera zabaltzea.

**Gehitu elkarteak gazteek aniztasun afektibo-sexualarekiko duten jarrerari buruzko ikerketa bategiten du urtero.**

Oro har, gazteek errespetua diete LGTB pertsonen, baina aldea dago ezagutzaren eta jarreraren artean. Alegia, modu hipotetikoan galdetuz gero, permisiboak dira, baina kasu zehatzei buruz galdetuz gero, haien jarrera ez da hain errespetuzkoa.

Ehuneko altu batek esaten du jazarpen homofoboaren testigu izan dela, eta batzuek



aitortzen dute parte hartu dutela jazarpenetan. Eta aniztasun afektibo-sexualarekiko arbuioa erakusten dutenak % 10etik % 30era bitartean dira. Mutilak dira horien artean gehiengo, eta neskak dira aniztasun afektibo-sexuala gehien onartzen dutenak. Baina datu bitxi bat dago: gehiago onartu arren, neskek ez dute beren lesbianismoa deklaratu. Hor beste faktore bat sartzen da jokoa: gayak askoz onartuago daude gizartearen lesbianak baino, lesbianek zama bikoitza dutelako: emakume eta lesbiana izatea.

### **Nahikoa al da errespetuzko jarrera erakustea, 'bullying' homofoboari aurre egiten zaiola eta aniztasun afektibo-sexuala onartzen dela ondorioztatzeko?**

Ez. Nik honako esaldi hau entzun izan dut nire familian: "Homosexualak ez ditut ulertzen, baina bakoitza libre da nahi duena egiteko". Esaldi horrek nahikoa gogaitzen nau. Batetik, ez dagoelako ezer ulertu beharrik. Bestetik, errespetua delako gizaki orori eska dakiokeen gutxienekoa. Aurrean duzun pertsona errespetatu behar duzu, bai edo bai. Nahiko zabaldua dagoen beste jarrer bat da errespetua erakustea, norberari eragiten ez dion bitartean. Nire iritziz, jarrera baztertzailak dira.

### **Administrazioetik zer egin da**

### **'bullying' homofoboari aurre egiteko? Neurriak hartzen dira? Zeintzuk?**

Ekintza asko eraman ziren aurrera Jokin Zeberioaren kasuaren ondoren. Eusko Jaurlaritzaren kezka piztu zuen, eta ekintza asko abiarazi ziren. Ikasleei informazioa eta laguntza eskaintzeko telefono bat jarri zuen, eta Berdintasunaren eta Aniztasun Afektibo-sexual eta Genero Identitatearen araberako Diskriminazio Ezaren aldeko Lan Plangintza (2011-2012) jarri zuen indarrean. Bestalde, Arartekoak Europako Rainbow proiektuan hartzen du parte, eta hezkuntza ere jorratzen du proiektu horrek.

Nafarroako Gobernuaren daturik edo informaziorik ez dut. Estatu mailan egindako ikerketa gehienak edo ia denak hartu ditut tesia egiteko, baina Nafarroakorik ez dut aurkitu. Agian badago, baina ez dut jaso.

Ikastetxeetan ere neurri zehatzak hartzen dituzte, ezin dugu kontrarik esan, baina neurri espezifikoez harago, oinarritik hasi behar dugu gauza asko aldatzen. Hor sartzen dira nik tesian planteatzen ditudan giltzarriak.

### **Irakasleen formakuntza da horietako bat. Gaiarekiko sentsibilitatea duten irakasleen motibazio pertsonalaren araberakoa**

### **izan beharrea, formakuntza derrigorrezkoa izatea eskatzen duzu.**

Irakasle-eskolan ez dago aniztasun afektibo-sexuala lantzen ikasteko ikasgaiarik. Hortaz, ikastetxeetan iristen direnean, nola jakingo dute homofobiari edo sexismoari aurre egiten? Gainera, berez eguneroan lan handia izaten dute irakasleek, beste arlo batzuetan ere formatzeko beharra... Horrek ekartzen du benetan interesa dutenek bakarrik jasotzen dutela formakuntza, eta normalean LGTB kasuren bat gertutik ezagutu dutenak izaten dira interesdunak. Formakuntza beharrezkoa da irakasle-eskolan, pedagogian edo gizarte-hezkuntzan. Eta eskoletan etengabe prestakuntza egon behar du homofobiari aurre egiteko.

Irakasleen formakuntza ez ezik, gurasoen formakuntza eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten beste zerbitzuetako pertsona batzuen formakuntza ere ezinbestekoa da. Duela gutxi Plentzian gertatutako kasuan, esaterako, etxetik ikastolarako bidean hasi zen jazarpena. Nork eman zuen abisua? Autobus-gidariak. Horretaz ari naiz esaten dudanean hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiak behar dutela formakuntza jaso.

Gurasoen formakuntza ere oinarrikoa da. Ikastolan aniztasun afektibo-sexua-

# aitor martxueta

## 'Bullying' homofoboaren lekuko izan dira DBHko ikasleen % 23 eta LHkoen % 12

ISEI Irakats-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ikaskideen arteko tratatu txarrei buruz LHn eta DBHn iaz egindako ikerketaren emaitzak plazaratu ditu. LHko hirugarren zikloko ikasleen % 21ek eta DBHko % 14,6k aitortu dute inoiz jasan dutela jazarpena. Bi kasuetan, 2005ean egindako ikerketako datuen aldean (% 17,7 eta % 11,9 hurrenez hurren), portzentaiek gora egin dute. LHko portzentaia gainera, inoizko handiena da gisa horretako ikerketa batean.

2012ko ikerketan, lehen aldiz, sexu-orientazioaren eta generoaren araberrako bazterketa kasuei buruz galdetu diete ikasleei. Jasotako datuen arabera, DBHko ikasleen % 23,6k diote ikaskide bat gay izateagatik etengabe baztertu dutela ikusi dutela; LHn, % 12k diote horrelako jokaera baten lekuko izan direla. Lesbianatzat hartzen diren ikasleen kasuan, ehunekoak apalagoak dira: % 7 DBHn eta % 5 LHn. Ikerketak beste datu "deigarri" bat biltzen du: DBHko ikasleen % 10ek baino gehiagok diote ikaskide bat, bere sexu-orientazio edo bere harreman afektibo eta sexuali buruzko esamesen bidez, etengabe baztertu duteneko kasuak ikusi dituztela. Azkenik, ikaskide bat mutila edo neska izateagatik baztertu duteneko kasuen ehuneko handiagoa da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan DBHn baino.

la lantzeko eta homofobiari aurre egiteko egindako prebentzio-lan oro alferrikakoa izan daiteke, gero ikasleak etxean aita edo ama ikusten badu futbol-jokalaria bati "marritxu" deika; ume horrek, eskolako patioan futboleko jolastan ari denean, erreproduzitu egingo baitu etxeko jarrera hori. Ez bagara oinarritik abiatzen, neurri guztiak zatikakoak baino ez dira izango.

### Eskoletan plan integralak osatzea proposatzen duzu. Zer neurri jaso beharko litzuzke horrelako plan batek?

Ikastetxe bakoitzak bere testuingurua du, bere irakasleak eta zuzendaritza-taldea ditu, eta beraz, nik ez dut esango zer den ikastetxe guztietan derrigor aplikatu beharrekoa. Baina ikastetxe batek honi aurre egin nahi badi, homofobiari aurre hartzeko programa bat behar du. Lehenik eta behin, eskolaren inguruan homofobia onartuko ez duten bazterketaren aurkako politikak diseinatu behar ditu, berdintasuna bultzatuko dutenak. Ondoren, politika horiek onartu eta ezarri behar dira ikastetxearen egitasmoetan, hezkuntza-komunitateko kide guztiak aintzat hartuz. Ikasleek eta gurasoek ere parte hartu behar dute. Zergatik? Gure oinarria hezkuntza inklusiboa delako, eta hezkuntza inklusibo horretan hezkuntza-komunitatearen kontzeptua daukagu. Gu hortik abiatzen gara: hezkuntza-komunitate hori osatzen duten kide guztiak parte hartu behar dute ikastetxe horretako funtzionamenduan. Are gehiago, oso interesgarria litzateke testuinguru horretan LGTB elkarteren bat egotea.

Hortik abiatuz, ikastetxeak ikaskuntza-testuinguru segururak eskaini behar dizkio ikasleari. Alegia, bermatu behar du ikasleak ikaskuntza-testuinguru horietara askatasun eta segurtasun osoz joateko duen eskubidea; ez duela bere mugimenduak, sentimenduak, izateko eta adierazteko modua mugatu beharko, indarkeriazko erasorik edo jazarpenik jasateko beldurrez. Neurriak hartu behar dira hala izan dadin. Aipatu dugu irakasleen eta gurasoen formakuntza beharrezkoa dela. Eskola-curriculumean LGTB gaiak azaldu behar dira; ezin dugu aniztasun afektibo-sexuala tratatu eta homofobiaren aurka egin, ez baditugu LGTB

gaiak txertatzen zeharka: garai historiko bat jorratzen ari bagara, garai horretako LGTB pertsona garrantzitsuak aipatu behar dira; familia-eredu ezberdinak aurkeztu behar dira, Haur Hezkuntzatik hasita, esaterako, familia homoparentalei buruzko ipuinak irakurriz; edo buruketetan txertatuz...

Bestetik, ezinbestekoa da jazarpen homofoboaren identifikatzea. Horretarako, oso argi eduki behar da zein diren balizko ekin-tza homofoboak —esaterako, ezin dugu esan "marritxu" deitzea ekin-tza homofoboa ez denik, badelako—, eta protokolo batean jaso eta zehaztu behar dira. Ikasleei sostengua ematea ere ezinbestekoa da; ikasleek konfiantza eta segurtasuna izan behar dute jazarpen-egoera batean irakaslearengana joateko, eta irakasle horrek jakin behar du ikasleari laguntza eta informazioa ematen, gurasoekin harremanetan jartzen... Ikasle-en babes-taldea sortzea ere oso lagungarria izango litzateke.

Oso garrantzitsua da LGTB elkarteekin lan egitea; adibidez, lesbiana edo gay bat ekartzea ikastetxera bere istorio pertsonala kontatzera. AEBetan oso normala da LGTB Astea antolatzea ikastetxean, ikasle-en familia homoparentalak aurkeztea eskolan...

### Eskoletako errealitatea gertuagotik ezagutzeko, ikerketa kualitatibo bat egiteko asmoa duzu. Aurreratu dezakezu zerbait?

Proiektuaren diseinua egina daukat, eta Ikastolen Elkarte edo Eskola Sare Publikoak prest egonez gero, asmoa dut bospasei ikastetxetan sartu, batez ere Bigarren Hezkuntzan (Lehen Hezkuntzan zailagoa da guk nahi dugun informazioa jasotzea), esperimentzia pilotu bat abian jartzeko.

Guk nahi dugu analizatu eta ebaluatu zer neurri hartzen dituen ikastetxe bakoitzak aniztasun afektibo-sexuala tratatzeko eta homofobiari aurre hartzeko; analizatu zein den ikasleek aniztasun afektibo-sexualaren inguruan duten jarrera; behin hori egindakoa, proposatuko genuke neurri-programa bat inplementatzea ikastetxe bakoitzean, eta berori aurrera eramatea; eta, azkenik, neurriak indarrean jarri ondoren, programaren ebaluazioa egitea, jakiteko eraginkorrak izan diren edo ez.

# PARTAIDETZA:

## gurekin bada, izango da (VII)



Marije APOKA,  
Gotzon QUINTANA  
eta Bea UGARTE

### 4. II. MODULUA

## PARTAIDETZA: gurekin bada, izango da!

Pentsamendu eta  
ekintza kritikoak (E)

Ahalduntzea (E)

Boterea eta erabakiak  
hartzea (E)

Parte hartzeko bideak  
(E)

Parte hartzeko guneak  
(E)

Beldurra II (LE)

Parte-hartze proiektua II  
(PP)

II. modulua

PARTE HAR DEZAKET: AHALDUNTZEA



## HELBURUAK

1. Gure bizitzako eta inguruko erabakietan eta etorkizuneari eragiteko dugun botere pertsonalaz jabetzea.
2. Dogmatismoak zalantzan jartzen dituzten jokaera kritikoetan trebatzea.
3. Kritikari aurre egitea eta onartzea (desadostasuna...).
4. Ohiko erabaki-esparruen ezaugarriak eta egitura horietara iristeko nahiz berorietan parte hartzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.
5. Testuinguruaren aniztasuna adieraziko duten talde guztien prozesuetan eta erabakietan parte hartzea eta eragitea erraztuko duten beste egitura batzuk proposatzea (denborak, taldeak, estiloak...).
6. Gazteek parte hartzen duten espazioak edo gazteen interesa pizten dutenak aztertzea (teknologia berriak, gazte-guneak, administrazioa, eskola, elkarteak, txokoak, ekipamenduak eta zerbitzuak –kiroldegia, gazte-bulegoa, sexualitate-bulegoa...).
7. Foroetan eta batzarretan parte hartzea.
8. Norberaren beldurrak eta sozialak identifikatzea, eta horien eta generoaren eraikuntzaren arteko lotura ezartzea.
9. Proiektu errealista bat garatu ahal izateko aukerak aztertzea.
10. Gazteen parte-hartzea beharrezko duten eta eredu gisa erabil daitezkeen ekipamenduak eta proiektuak ezagutzea; hala, proiektu bat garatzeko orduan kudeaketa-modu jakin bat hautatu ahal izateko (autogestioa, kudeaketa partekatua, kudeaketa administrazioa, etab.).

## OINARRIZKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzukizuna eta konpromisoa bana-kako nahiz taldeko lanean</li> <li>- Desberdina denarenganako errespetua</li> <li>- Jasotako laguntza aitortzea</li> <li>- Arrazoi sendoetan eta errespetuan oinarritutako arrazoibidea</li> <li>- Taldeko jarduerekin ondo pasatzea</li> <li>- Autonomia erabakiak hartzeko orduan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argi identifikatzen ditu tratu txarren egoerak nahiz horiek sustatzen dituzten jarrerak.</li> <li>- Desberdintasunaren aurrean entzuteko jarrera eta interesa agertzen ditu.</li> <li>- Banakako lana isilik egin du.</li> <li>- Autoestimu orekatua bultzatzen duten elementu positiboak eta autoestimu positiboa eragozten dutenak bereizten ditu.</li> <li>- Erabakiak hartzeak funtsezko tokia bete duen autobiografiako une kritikoak identifikatzen ditu, eta argazki-album batean adierazten ditu.</li> <li>- Garapen sozialean eta pertsonalean beste pertsona batzuek eman dioten laguntza aitortzen du.</li> <li>- Erabaki-prozesuetako funtsezko elementuak eta kontzeptuak bereizten ditu.</li> <li>- Taldeko jardueretan ondo pasatzen du.</li> <li>- Lasaitasun osoz erabili ohi dituzten Interneteko sareak izendatzen ditu.</li> <li>- Autokontrolaren aldeko eta kontrako elementuak bereizten ditu.</li> <li>- Debateetan eta bere jarrera defendatzerakoan zentzuzko arrazoibideak ematen ditu.</li> <li>- Taldean planteatutako lan kooperatiboan parte hartzen du, eta arauak errespetatzen ditu.</li> </ul>

## SAKONTZEKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzukizuna eta konpromisoa taldeko lanean</li> <li>- Arrazoi sendoetan eta errespetuan oinarritutako arrazoibidea</li> <li>- Boterea eta botere-abusua bereiztea</li> <li>- Nork bere buruan botere pertsonalaren adierazleak identifikatzea</li> <li>- Giza eskubideak erabiltzea hainbat talderen aldarrikapenen interpretazioa egiterakoan</li> <li>- Taldeko jarduerekin ondo pasatzea</li> <li>- Norberaren beldurrak adieraztea</li> <li>- Beldurraren arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, eta baita generoak horietan duen eragina ere</li> <li>- Egindako lana argi eta zehatz adieraztea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Manifestu bat zer den eta zer gizarte-erabilera duen ulertzen du.</li> <li>- Inguruko gizarte-taldeak bereizten ditu.</li> <li>- Gizarte-izaerako elkarteak eta zerbitzuak bisitatzen ditu, eta aztertuko duen taldeari buruzko informazio ugari jasotzen du.</li> <li>- Giza eskubide bat bere lanerako aukeratutako kolektiboaren aldarrikapenekin lotzen du.</li> <li>- Bere bizitzako esparruak bereizten ditu, eta esparru horietako bakoitzean konpromisoa duela sentitzen du.</li> <li>- Bere bizitzako esparru horietan eragiten duten pertsonak identifikatzen ditu, zer-nolako eragina duten jabetzen da, eta bere boterea kalkulatzeko duen esparru horietako bakoitzean.</li> <li>- Landutako kontzeptuak lotzen ditu eta kausa-ondoriozko loturak ezartzen ditu</li> <li>- Gure helburuak lortzeko boterea eta norberaren indarra beharrezkoak direla esaten du.</li> <li>- Eguneroko harremanetan botere-abusuaren ondorio negatiboren bat identifikatzen du.</li> <li>- Pertsona ahulak babesteko taldearen laguntzaren beharra arrazoitzen eta balioesten du, umiliazio-egoeretan eta tratu txarretan.</li> <li>- Esku hartzea eta boterea kritikatzeko posible den esparruren bat aurkitu du, eta egoera horretarako irtenbideren bat proposatzen du.</li> <li>- Intimitaterako eskubidea balioesten eta defendatzen du, eskubide unibertuala den heinean.</li> <li>- Lankidetzan oinarrituta ebazten du kasua.</li> <li>- Izan ohi dituen beldurrak adierazten ditu.</li> <li>- Jatorrian generoan duen beldurra bereizten du.</li> <li>- Beldurrak pertsonengan izan ditzakeen ondorio positiboak eta negatiboak ahoz adierazten ditu.</li> <li>- Landuko duen gaiarekin lotutako errealitateari buruzko informazioa ematen du.</li> <li>- Ideia hobetzeko ondorioak eta gomendioak idazten ditu.</li> <li>- Talde-lan garbi eta argia prestatzen du.</li> </ul>

## II. MODULUKO JARDUEREN KOADROA

### Parte har dezaket: ahalduntzea ENTRENAMENDUA

Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
Oinarritzkoa	II.1 Lesbofobiari, homofobiari eta transfobiari buruzko azterketa	
	II.2 Zertan da gure autoestimua?	Tresnak: II.2: Zertan da gure autoestimua?
	II.3 Nork lagundu didate erabakiak hartzen?	Tresnak: II.3: Nork lagundu didate erabakiak hartzen?
	II.4 Internet: intimitaterako mundua?	
	II.5 Ikasgelako batzarra	Tresnak: II.5: Ikasgelako batzarra
Sakontzeko	II.6 Mundu hobe baten aldeko manifestua	
	II.7 Nik egin dezaket..., bizi naizelako eta pertsona naizelako	Tresnak: II.7: Nire mundua eta ni Baliabidea: II.7 Ahalduntzea
	II.8 Botere-abusua eta diskriminazioa	Tresnak: II.8: Botere-abusua eta diskriminazioa
	II.9 Intimitaterako eskubidea	Tresnak: II.9.1: Kasuen azterketa II.9.2: Estilo asertiboa  Baliabideak: II.9: Intimitaterako eskubidea
	II.10 World Cafe foroa	Tresnak: World cafe karpeta

## III. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: LE/LAN EMOZIONALA: beldurra II

Jarduerak	Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
LE/II.1: Beldur berak ditugu?	Tresnak: LE/II.1: Beldurraren horma-irudia  Baliabideak: <a href="http://www.radialistas.net/clip.php?id=1700036">http://www.radialistas.net/clip.php?id=1700036</a> (beldurrari beldurra)

## III. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: PP/PROIEKTU PARTE-HARTZAILEA II Proiektu baten 2. urratsa

Jarduerak	Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
PP/II.1: Zer aukera ditu gure ideiak?	Tresnak: PP/II.1.1 PP/II.1.2

II.1 zk.	Lesbofobiari, homofobiari eta transfobiari buruzko azterketa
<b>Deskribapena</b>	Gazteen sexu-aniztasunari buruzko dokumental baten bitartez, hainbat kasu erreal eta horien protagonistak ezagutuko ditugu (sentimenduak, sortutako gatazkak konpontzeko moduak, hartzen dituzten erabakiak, laguntza-sareak, maitatzeko modua,...). Maitasunaren eta gure grina sexuala edo maitasun-grina adierazteko benetako aukeren inguruko mitoei buruzko debatea sustatuko dugu. Askotan ezkutuan geratzen diren edo baztertu egiten diren errealitateen aurrean jarrera jakin bat hartu behar dugu.
<b>Teknika</b>	Hautatutako dokumentala ikustea Debatea
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Maitasuna: maitasunari buruzko mitoak hausteko, sexu-aniztasuna ezagutu behar da. Garrantzitsua da jarduera hau dinamizatuko duten pertsonen gai hauen inguruko edukiak landuta izatea:</li> <li>– Sexu-orientazioa: hetero-homo-trans</li> <li>– Sexu- eta genero-nortasuna</li> <li>– Indarkeriaren zantzuak</li> <li>– Mitoak (azukre koxkorra, printze urdina, maitasun erromantikoa, maitasun unibertsala...)</li> <li>– Subjektibotasuna, norik bere burua ezagutzea eta autoestimua</li> <li>– Maskulinitatea eta maitasuna</li> <li>– Feminitatea eta maitasuna</li> <li>– Indarkeriazko ezkongai-harremanak</li> <li>– <i>Bullyinga</i>: dokumentalean nabarmendu beharreko <i>bullying</i> kasuak ikusten dira; oso aukera ona da gai hori lantzeko.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Irakasleek dokumental egokia aurkituko dute sakontzeko materialen arteko materialetan.</li> <li>– Parte-hartzaileak prestatuko ditugu ikusi eta landuko ditugun gaietan: sexu-aniztasunean, hainbat kontzepturen azalpenean, hala nola homofobia, sexu-orientazioa, homosexualitatea, heterosexualitatea...</li> <li>– Sexu-aniztasunari buruzko dokumentala emango dugu, eta ezagutzen dituzten kontzeptuak edo deigarri gertatu zaizkien datuak jasoko dituzte.</li> <li>– Iritziak trukatzeko une bat sortuko dugu.</li> <li>– Taldeka, adierazpen-askatasunarekin eta sexu-aniztasunarekin lotutako dekalogo bat prestatuko dute.</li> <li>– Dekalogo hori ikastetxean argitara daiteke (iragarkien taulan, blog batean, karteletan...)</li> </ul>	
<b>Sakontzeko</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Genero-indarkeriari aurrea hartzeko gida. Emakume Gazteen Federazioa. Jaitsi hemendik: <a href="http://www.mujeresjovenes.org/quienes_somos.php">http://www.mujeresjovenes.org/quienes_somos.php</a></li> <li>– Indarkeriari aurrea hartzeko gida. Urtxintxa Eskola. Jaitsi hemendik: <a href="http://www.urtxintxaeskola.org">www.urtxintxaeskola.org</a></li> <li>– Aldarte: <a href="http://www.aldarte.org/cas/site/default.asp">http://www.aldarte.org/cas/site/default.asp</a></li> <li>– Euskal Herriko gay-les askapenerako mugimendua: <a href="http://www.ehgam.org/">http://www.ehgam.org/</a></li> <li>– Deskonekta zaitez tratatu txarretatik: <a href="http://www.minoviomecontrola.blogspot.com/">http://www.minoviomecontrola.blogspot.com/</a></li> <li>– <a href="http://www.gehitu.net">www.gehitu.net</a></li> </ul>	





II.2 zk.	Zertan da gure autoestimua?
<b>Deskribapena</b>	Intimitateari, erlaxazioari eta nork bere burua ezagutzeari buruzko jarduera da.
<b>Teknika</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Banakako lana: galdeketa</li> <li>- Talde-lana: debatea</li> </ul>
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- II.2 tresna: zertan da gure autoestimua?</li> <li>- Erelaxatzeko musika eta musika entzuteko tresna</li> </ul>
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<p>Gure baliabide pertsonalak ezagutzen baditugu eta modu eraginkorrean erabiltzen baditugu, parte-hartzea egingarriagoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontzientzia handiagoa izango dugulako.</li> <li>- Erabakitzeke ahalmen handiagoa izango dugulako.</li> <li>- Eragiteko ahalmen handiagoa izango dugulako.</li> <li>- Konpromiso maila handiagoa izango delako.</li> </ul> <p><b>Alderdi metodologikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Segurtasun-giroa bilatzen dugu, norberak inguruaren presiorik gabe gogoeta egin ahal dezan bere buruari buruz. Horretarako, une egokia zein den pentsatu behar dugu, edozein ordu ez da ona, ezta edozein egun ere. Irakasleok horretarako egunik egokiena zein den pentsatuko dugu aurrez.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autoestimuari buruzko galdeketa banatuko diegu ikasleei. Lan pertsonala dela eta erantzunak ez direla bateratuko esango diegu. Lasai eta segurtasunez egin dezakete.</li> <li>- Giro lasaia sortuko dugu, musika lasaigarria eta siltasuna erabiliz. Komenigarria bada, beste toki egokiagoren bat bilatuko dugu ikasgelatik kanpo.</li> <li>- Galdeketa egingo dugu.</li> <li>- Lan hori egin ondoren, ikasleei galdetuko diegu ea euren ustez zer alderdi landu beharko genituzkeen autoestimu positiboa lortzeko, eta zer alderdik oztopatzen duten autoestimu hori lortzea.</li> <li>- Genero-indarkeriari aurre egiteko Gidako 3. kapituluaren teoria azalduko dugu. Emakume Gazteen Federazioa.</li> </ul>	
<b>Sakontzeko</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakunde aldizkaria, <i>Procesos de empoderamiento de la adolescencia vasca</i>. Martxoa, 2009 Emakume Gazteen Federazioa (2005). Guía de prevención de violencia de género. Madril. Jaitsi hemendik: <a href="http://www.mujeresjovenes.org/quienes_somos.php">http://www.mujeresjovenes.org/quienes_somos.php</a></li> </ul>	



## II.2 tresna. Zertan da gure autoestimua?

Eskaini une bat zure buruari eta egin galdera hauek. Erantzun honela:

1 = Bai, beti

2 = Bai, gehienetan bai

3 = Bai, batzuetan

4 = Ez, gehienetan ez

5 = Ez, inoiz ez

Emandako erantzunen arabera, zure autoestimua nola dagoen erabaki dezakezu	1	2	3	4	5
Bizitzan bizi izandakoak nire burua maitatzen eta balioesten erakutsi al dit?					
Iritzi ona al dut nire buruaz?					
Nire burua ondo tratatzen dut eta nire burua zaintzen dut?					
Gustuko dut nire burua?					
Nire nolakotasunei, abileziei eta alde sendoei nire ahuleziei eta akatsei ematen diedan garrantzi bera ematen diet?					
Ondo sentitzen naiz nire buruarekin?					
Uste dut eskubidea dudala gainerako pertsonen entzun diezadaten eta denbora eskain diezadaten?					
Gauza onak gertatzeko eskubidea dudala uste dut?					
Nire buruarekin ditudan itxaropenak gainerako pertsonetikiko ditudanak baino zorrotzagoak edo perfekzionistagoak dira?					
Nire buruarekiko harremanetan atsegina eta bihoztuna naiz, edo auto-kritika nagusitzen da gehiago?					

**Eta... horrek guztiak indarra ematen dit:**

.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....




II.3 zk.	Nork lagundu didate erabakiak hartzen?
<b>Deskribapena</b>	Gure bizitzaz pentsatuko dugu, eta norbaitek erabakiren bat hartzen lagundu digun uneren bat edo gure orde erabaki duen uneren bat azpimarratuko dugu, gero eta autonomia eta erantzukizun handiagoa hartu behar dugula jabetzeko.
<b>Teknika</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Banaka.</li> <li>– Talde handian.</li> </ul>
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– II.3 tresna: nork lagundu didate erabakiak hartzen?</li> <li>– Argazkiak</li> <li>– Album autobiografikoa osatzeko aplikazio digital bat</li> </ul>
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Autonomia maila handiagoa lortzeak erantzukizunez jokatzeko eskatuko diguten eremu zabalagoak onartu beharra ekarriko du.</li> <li>– Erabakiak hartzerakoan orientabideak ematea eta lagun egitea balioesteko eta eskerrak emateko moduko elementuak dira.</li> <li>– Hezkuntza-prozesuaren arrakasta zuzen-zuzenean lotzen zaio autonomia pertsonalerako gaitasuna garatzeari.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Datu autobiografikoak eta argazkiak bilduko ditugu, zuzenean edo zeharka une erabakigarri horietara eta prozesuan lagun izan ditugun pertsonengana hurbiltzen lagunduko baitigute.</li> <li>– Boterearekin, erabakiguneekin eta eraginarekin lotutako alderdi eta kontzeptuak erlazionatzeko lagungarri izango zaizkigun analisi-fitxa eta kalifikazioak osatuko dira.</li> <li>– Duela gutxi bizitako gertuko esperientzia bat, erabakiak hartzen ari garela sentiarazi digun eta horretarako aukera eman digun bizi-pen bat, balioetsiko da.</li> <li>– Amaierako elkarrizketa labur batean, moduluaren helburuekin lotutako ondorioak bilduko dira.</li> </ul>	



# ekarpenak

## Irakaste-metodologiak Lanbide Heziketaren zerbitzura

Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntza konpetentziak garatzeko metodologietan: 'Ikaskuntza Agertoki Berriak' esperientziaren azterketa



**Esti AMENABARRO IRAOLA**  
EHUko irakaslea

XX. mendearen azken bi hamarkadetak hona jendartean gertatu diren aldaketek Lanbide Heziketaren planteamendua (Lanbide Heziketa lan-merkatura bideratzeko langileen prestakuntza oinarri duen heziketaren aldi gisa ulertuta) berriro pentsatu beharra ekarri dute. Dinamikoa eta aldakorra den jendarte honetan, Lanbide Heziketari bere hezkuntza-jardueraren gaineko gogoeta egin beharra suertatu zaio: zer irakatsi eta nola irakatsi lanbide bat lortzea helburu duten norbanakoei? Ingurumari horretan, konpetentzia kontzeptua eta haren inguruko esperientziak eta metodoak garatu dira, hala nazioartean (OCDEren Deseco, 1997; Delors, 1999), nola Euskal Herrian (90eko

hamarkadan Lanbide Heziketaren esparruan egindako ekarpena oparoa izanik, aipagarria da *Bizitza Osorako Ikaskuntzaren Liburu Zuria*, 2004 edota CREANOVA, 2010).

Gaur egungo gizarte globalizatuan, ba al dute zentzurik ezagutza linealean oinarritutako hezkuntza-prozesuek? Linealtasun horri jarraiki, irakasle orojakileak transmititzen du ezagutza, eta ikaslearen eginbehar bakarra zuzenean informazio hori metatzen joatea da. Beraz, norabide bakarreko prozesu honetan, ikaslea objektu pasibo gisa hezten jarraitu behar al dugu? (Freire, 1999).

Ondoko orriotan, Lanbide Heziketaren eremuan garatzen ari den irakasleen etengabeko prestakuntza helburu duen *Ikaskuntza Agertoki Berriak* programaren azterketa aurkeztuko dugu.

Programa horren azken xedea irakasleei bestelako metodoetan (konpetentzien garapena) oinarritutako ikaskuntza-aukera didaktikoak eskaini eta haiei buruzko gogoeta egitea da, gero haiek praktikara eraman ditzaten. Gure ikerlanaren helburua, berriz, programa horren asmoak praktikan nola ebazten eta gauzatzen diren ikustea izan da, prozesuan engaiatuta dauden pertsonen bizipenetatik abiatuta.

### Zergatik ikasi eta irakatsi behar dugu beste modu batera XXI. mendean?

Ikasle bakoitzak ikasketak hasi eta berehala zer izan nahi duen edo zer nahi duen ar-

giizango balu, arreta bere intereseko diziplinetan jarriko luke ziurrenik, kasu horretan, ikasitakoak gizabanakoarentzat onura zuzen eta argia izango lukeelako. Bizitzarako prestatzea helburu duten ikaskuntza-prozesuetan ezinbestekotzat jotzen da ikasleak ikasten duen horri zentzua bilatzea, (ikas-kuntza esanguratsua izatea, esanahia duena, konstruktibismoaren ideia oinarritzkoa, geroa Habermasen ikuspegi sistemiko-komunikatiboak zein Freire pedagogo brasildarraren hezkuntza-eredu dialogikoak osatu duena). Esanahiak eraikiko ditugu baldin eta subjektuen artean komunikazioa sustatzen badugu, baina, gaur-gaurkoz, hezkuntza-sistemek ez dute hori onesten, eta herri-tar denentzat oinarritzkoak diren ezagutzamarko orokorra zehazten eta behartzen du, curriculumaren bitartez.

Konpetentzien bidezko ikaskuntzak garrantzi berezia eskaintzen dio bizitzarako prestatzearen ideari (Perrenoud, 2012), eta bizitzak sortzen dituen gatazken eta egoeren aurrean gizabanakoa irtenbideak emateko prestatu beharraz mintzatzen zaigu.

Testuinguru horretan, hezkuntzari bestelako erronka batzuk proposatzen zaizkio. Stonier-ek, 1989. urtean, *Education: Society's number one enterprise* lanean jendarte-eredu berriak izan beharko lituzkeen erronka berriak zehazteko ahalegin gure ustetan ausarta egin zuen: lan-mundurako prestatu behar dira, bizitzarako prestatu behar dira, mundua ulertzeko, norberaren garapena bermatu eta norberaren aisia eta ongizaterako

prestatu behar dira gazteak (Salinas, 1997: 2).

Nahikoa genuke lan-munduari eta sektore produktiboei begirada azkar bat ematea pentsatzeko pertsonak profesional gisa lan egiteko beste modu batez trebatu behar ditugula. Jack Lohmanek (2008), American Society of Engineering Education elkargoko lehendakariak, etorkizuneko “ingeniari globala” aipatu zuen, eta honako dohain hauek izan behar litzuzkeela azpimarratu zuen: mundu globalizatuko profesionalak kulturenganako sentikorra izan behar du, kontzientzia soziala eta zuhurtzia politikoa eduki behar ditu, jakintza zabala, bizitzan zehar ikasiz joateko gaitasuna eta presutasuna; eta diziplina arteko taldeetan parte hartu behar du, komunikatzaile ona behar du izan, atzerriko hizkuntzetan trebatuta egon behar du, eta etikoki irmoa, berri-tzailea, ekintzailea eta malgu izan behar du; horrez gain, mobilizatzeko gai izan behar du, eta horretarako gogoia izan behar du.

Ondorioa garbia da, beraz: jakintza-eremu bakoitzari dagokion ezagutza-arloak garrantzia badu ere, ezinbestekoa da bestelako konpetentzia batzuk garatzea. Hezkuntza-proposamen integralak egin behar ditugula argi izanik ere, bada komunitate zientifikoaren baitan, oraindik orain, ordea, arazo nabarmen bat: zein dira pertsona bategatik gatazka eta arazo oroaren aurrean garatu behar dituen gaitasun edo/eta konpetentziak? Prest al dago hezkuntza-komunitatea hori egikaritzeko? Bestelako moldeetan irakasteko? Eta nola ebaluatuko ditugu horiek?

Argitu dezagun, ordea, zertaz ari garen konpetentzia esaten dugunean.

### Zer da konpetentzia delako hori?

Europaren testuinguruan jarduten duten nazioarteko erakundeek alfabetatze funtzionalaren kontzeptua mahairatu zutenetik (Unesco, 1970), asko idatzi da ikasgiletan zer eta nola ikasi beharrekoaren inguruan. Gogoeta hori, konpetentzia kontzeptuaren bidez gaurkotu da, eta horren ingu-

ruko literatura zabala dela esan genezake (Perrenoud, 2004; Gimeno, 2008; Moneiro, 2009). Zaila dirudi kasu gehienetan adostasun oinarritzko bat bilatzea ere, baina bada adostasun nahikoa esateko konpetentzia egoera desberdinen aurrean modu eraginkor batean jarduteko norbanakoak duen ahalmena dela, horretarako baliabide intelektual eta emozionalak abian jarritz (Perrenoud, 2012: 57).

Interes orokorreko hiztegi-tara jo besterik ez dago ikusteko konpetentzia eta gaitasun kontzeptuen arteko muga ez dela hain argia, eta kasurik gehienetan baliokide moduan ageri zaizkigu. Honela, ezertan hasi aurretik, beharrezkoa da kontzeptu horiek argitzea; horretarako, Perrenoud eta Rey-k (2012; 2000) jasotzen duten moduan, beharrezkoa da konpetentzia (*competence*) eta gaitasuna (*skill*) kontzeptuen arteko muga zehazteko irizpideak definitzea: lehenengoek egoera bati erantzuteko dugun moduaren arabera egitea proposatzen dute; horrela, egoera bati modu orokor eta orohartzailan erantzuten badiogu, konpetentzia garatzen ari gara; aldiz, egoera zehatz bati erantzuna ematen ari bagara, gaitasuna lantzen ari gara. Denok ez diegu egoerei modu berean erantzuten, askotarikoak gara, denok ez dugu denetik egiteko ahalmenik. Nola zehaztuko dugu, beraz, zein konpetentzia garatu? Eta horren eragin-esparrua? Nola zehaztu zein esparrutan duten haiek baliagarritasuna? Hori ebazteko, egoera eta egin beharrak zehaztea genuke egokiena; aurreikuspen egoki batek, baita gure jardunaren errealitatearen analisi egoki batek ere, konpetentzia egokiaren balioespina berma diezaguke (Perrenoud, 2012: 59-68).

Konpetentzien garapena helburu duen irakasteko eta ikasteko jarduerak, ezagutzaren eta bestelako balio batzuen arteko integrazioa bilatu nahi du. Ez da nahikoa gai edo jakintza-eremu baten inguruan asko jakin edo irakastea. Hezkuntzaren helburua haratago finkatuko du: asko dakiten ikasleak baino, bizitzan modu eraginkorrean baliatuko diren gizon eta emakumeak treba-

tzea izango du helburu: “*una capacidad de movilizar diversos recursos cognitivos para hacer frente a un tipo de situaciones*” (Perrenoud, 2004:4).

Konpetentzien bidezko irakaskuntzaren diskurtsoak hezkuntza-sistema (formala) eta sistema produktiboa (lan-mundurako sarbidea) ulertzeko modu berri baten atarian kokatu gaitu. Bien arteko aldea gutxitzea beharrezkoa izanik, eztabaida honen ondorioak azpimarragarriak izan dira—adierazgarriak dira ildo honetan enpresaren munduak egiten dituen ekarpenak (Confebask, 2010)—, batez ere lan-merkatua eta giza baliabideen kudeaketa ulertzeko modu berri baten testuinguruan kokatzen baikaitu. Inguruabar horretan kokatu behar dugu Lanbide Heziketaren leerroaren garapena bera ere, berrikuntza ikuspegi horretatik. Hezkuntzaren eremuan, oro har, eta Lanbide Heziketarenean bereziki, gizakiaren berezko gaitasunen garapena oinarri duen irakaskuntza-ikaskuntza baten eskematik beraz, konpetentzien

### Gizakiaren berezko gaitasunetik:

norbanakoak dituen ezagutzak, abileziak eta jarrerak, eskuartean duen lana edo zeregina betetzeko.

### Konpetentzi-tara:

Ikaskuntza-prozesuan, arian-arian sortzen diren arazo eta egoerei modu sortzaile eta autonomoan erantzun eraikitzaileak eskaintzeko ahalbidea emango diguten ezagutzak, abileziak eta jarrerak bilduko litzuzke bere baitan. Lankidetzazko jarrerak sustatu eta antolakuntzan parte-hartzeko zuzena bermatuz.

garapena oinarri izango duen eredu batera jauzi egin dugula esan dezakegu. Konpetentzia, orde, bidezidor asko dituen errepede nagusiaren antzekoa da, eta gure helburuak erdietsiz helmugara iritsi nahi badugu, bidezidorrak nahitaezkoak zaizkigu, errepede nagusia zabalena izanik ere. Horrela, errepede deetako bidegurutzeen antzera, zeharkako konpetentziak (*key skills*) ageri zaizkigu, konpetentzia-giltza edo -gako ere izendatzen direnak; gai honetan aditua den Perrenoud (2012) irakasleak dioskunaren arabera, giza ekintzaren oinarriko elementuak dira, gizakiak komunikatzeko, adierazteko eta ekiteko duen ahalmena posible egiten dutenak.

### Ikerketaren helburua: errealitatearen interpretazioa

Ikerketa honen oinarri dokumentala garatzeko Tolosaldea Lanbide Institutuko lau irakasle elkarrizketatu ditugu (jasotako informazioaren kudeaketa egiteko, berriz, Nvivo 8.0 analisi kualitatiborako programa baliatu dugu). Aipatu irakasle horiek, Teknikazentzako (Eusko Jaurlaritzaren meneko egitura, Lanbide Heziketan Berrikuntza sustatzea helburu duena) zuzendu eta gidatutako *Ikaskuntza Agertoki Berriak* prestakuntza-programan parte hartu dute.

Paradigma interpretatzailean kokatu dugu hori, zuzenki inplikaturik dauden irakasleengana hurbiltzeko modurik egokiena delakoan, mundua eta errealitatea haien ikuspegitik ikusi nahi izan baititugu. Prozedura, berriz, kasu-azterketarena izan da. Hurbilketa kualitatibo eta interpretatiboa egin dugu, irakasleen prestakuntza-programa jakin bat agerrarazi, ulertu eta interpretatu nahi izan dugulako; horretarako, irakasleen igurikimen, kezka eta bestelakoak jasotzen saiatu gara.

Elkarrizketak burutu ondoren, informazioa antolatzeke hainbat kategoria zehaztu ditugu, eta ondoren honako alderdi hauek aztertzeke:

- (a) irakasleen motibazioa aipatu ikastaroan parte hartzeke.
- (b) ikaskuntza-agertoki berriak formazio proposamenen bidez irakasleei eguneroko jardunean egiten dien ekarpena.
- (d) konpetentzien bidezko ikaskuntzaren garrantzia.

(e) erresistentziak ikasleen aldetik.

(f) eguneroko jardunean ikasitakoaren transferentzia egiteko dituzten mugak eta zailtasunak, azken horiek hiru multzotan: metodologiaren arloan, ebaluazioarenean eta baliabideen eremuan.

Ondorio nagusiak, berriz, honako hauek dira:

a) Konpetentzien bidezko irakaskuntza-ikaskuntzaren ahalmena oso nabarmena da.

b) Irakasleek gogo eta motibazio handia dute beste modu batez irakasteko.

d) Ikastetxean, euren egunerokoan, zailtasun eta oztopo andana topatzen dute ikastaroan ikusi eta bizi dutena lekualdatzeko unean. Zailtasunak bi dira nagusiak:

- Metodologia behar bezala ez menperatzea.
- Erresistentzia handia ikasleen aldetik beste modu batean ikasteko.

### Aurrera begira

Aurrera begira, irakasleek beste modu batean irakatsi eta ikasleek beste modu batean ikas dezaten, metodologia eta estrategia didaktikoetan sakontzen jarraitzeko beharra nabarmena da. Alta, beharrezkoa deritzogu irakasleen prestakuntza berriro definitzei, gure irakatsi eta ikasteko jardueretan aldaketak modu nabarmenean gauzatu badira. Begi-bistakoa da ehun orduko ikastaro baten bitartez nekez eraldatuko dugula hamarkadetan garatutako irakatsi eta ikasteko jarduna. Hezkuntza eraldatu nahi badugu, irakasleen prestakuntza da gakoa.

### Bibliografia

CONFEBASK (2010). *Lanbide Orientazioaren Azterketa Euskadiko Hezkuntza Sistematan*. Confebask: Donostia.

CREANOVA (2010). *Discovering Vision. Theoretical foundations and practical solutions in the field of the creative learning*. [http://www.creanovaproject.eu/ficheros/Discovering\\_vision\\_2NX14H.pdf](http://www.creanovaproject.eu/ficheros/Discovering_vision_2NX14H.pdf).

Delors, J. (1999). *Hezkuntza altxor ezkontua*. XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egin dako txostena. Bilbo: Unesco Etxea.

EUSKO JAURLARITZA (2004). *Euskadi, Ikaskuntza berria. Bizitzia osoan zehar egiten den ikaskuntza liburu zuria*. Gasteiz. [\[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2932/eu/contenidos/informacion/libro\\_blanco\\_ap/eu\\_6480/adjuntos/e-pa\\_e.pdf\]](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2932/eu/contenidos/informacion/libro_blanco_ap/eu_6480/adjuntos/e-pa_e.pdf). 2013/01/28an kontsultatua

Freire, P. (1999). *Freireren ekarpenak. Autonomiaren pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak*. In Cuadernos de Sección, 10. zk. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Freire, P. (1999). *Freireren ekarpenak. Autonomiaren pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak*. In Cuadernos de Sección, 10. zk. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Freire, P. (1999). *Freireren ekarpenak. Autonomiaren pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak*. In Cuadernos de Sección, 10. zk. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Jimeno Sacristán, J. (koord.) (2008). *Educar por competencias. ¿Qué hay de nuevo?* Madrid: Morata.

Monereo, C. [koord.] (2009). *PISA como excusa. Repensar la evaluación para cambiar la enseñanza*. Barcelona: Graó.

OCDE (1997). *La definición y selección de las competencias clave*. <http://www.deseco.admin.ch/bfs/desecco/en/index/03/02.parsys.78532.downloadList.94248.DownloadadFile.tmp/2005.dscexecutivesummary.s.p.pdf> 2013/01/28an kontsultatua

Lohman, J. R. (2008). *Advancing the global capacity for engineering education research*. Journal of Engineering Education. Atlanta: USA. [\[http://www.sefi.be/wp-content/abstracts/1014.pdf\]](http://www.sefi.be/wp-content/abstracts/1014.pdf) 2012/09/7an kontsultatua

Perrenoud, P. (2004). *Diez nuevas competencias para enseñar*. Barcelona, Graó.

Perrenoud, P. (2012). *Cuando la escuela pretende preparar para la vida. Desarrollar competencias o enseñar otros saberes?* Barcelona: Graó.

Rey, B. (2000). *¿Existen las competencias transversales?* Educar 26, 9-17 <http://www.raco.cat/index.php/educar/article/viewFile/20724/20564>. 2012/08/31n kontsultatua.

Salinas, J. (1997). *Nuevos ambientes de aprendizaje para una sociedad de la información*. [\[http://cmaserver.unavarra.es/servlet/SBReadResourceServlet?rid=1102671374296\\_2013662419\\_1650\]](http://cmaserver.unavarra.es/servlet/SBReadResourceServlet?rid=1102671374296_2013662419_1650). 2012/08/24n kontsultatua.

UNESCO. (1970). *La alfabetización funcional ¿cómo y por qué?*, Paris. Publicaciones UNESCO.

# esperientziak

## Ipuinen bitartez haur txikiekin sexualitatea lantzeko proiektua

Kantua, ipuina, irudia, dantza eta jolasa uztartzen dituen materiala sortu dute, 0-6 urte bitarteko haurrak egunerokoa hezteko lagungarri izan dadin

**Sexu-hezkuntza praktira eramateko saiakera bat da honako hau, ikasgela bateko pasarte xume batetik hasi eta herriko hainbat txokotara zabaldu den proiektu bat.**

**LARRAITZ ARANDO**

**Sexologo eta psikopedagogo**

Saiakera honek Arrasateko herrian du jatorria. 1996az geroztik, Udaleko Sexologia Zerbitzua dago herrian, eta, berorren ibilbidean zehar horrelako esperientziak pilatu dituzenez, ez da kasualitatea han kokatzea.

Oraingoan, gertutik aurkeztu nahi dut horietariko esku-hartzeko bat, haur txikiekin sexu-hezkuntzarako lanketa estrategiko bat nondik sortu zen eta gerora nola garatu den irudikatzen; beste hitz batzuekin esanda, ikasgela bateko pasarte xume batetik hasi eta herriko hainbat txokotara zabaldu den proiektua ezagutarazteko.

### **Pasarte bat, abiapuntu**

Pasarte bat izan zen honen guztiaren abiapuntu, Sexologia Zerbitzuan horren ohikoak diren pasarte horietariko bat, alegia. Haur Hezkuntzan lau urteko umeekin aritzen zen irakasle bat etorri zen gurera. Ikasgelan ikusitako hiruzpalau egoerak sexu-hezkuntzaren inguruko kezka sortu baitzuten harengan.



Ikasgelako ikasle batzuek anai-arrebak izango zituzten aurki. Ikaskideen ama tripa-handiek haurren arreta piztu zuten. Horren ondorioz, tripa barruko haurrei buruz galderak egiten hasi ziren, bata besteari azalpenak ematen, isilune deserosoak bizitzen... Gaiarekiko izugarritzko jakin-mina sortu zitzaizen haur gehientsuenei, eta ikasgelako giroa zeharo aztoratu zen.

Hain zen handia jakin-mina, zerbait zekienak azalpenak ematen baitzizkion jakin nahi zuen hari: Pariseko zikoinak, hazitxoak, erlea... Haurrek entzundako, asmatutako eta irudimenarekin jositako azalpenak ziren. Azalpen polit eta kezagarriak iruditu zitzaizkion irakasleari.

Aurretik hautemandako jarrera batzuk eta azalpen horiek oinarri hartuta, ikasgela

horretako haurrekin sexu-hezkuntza lantzea erabaki zuen irakasleak. Ikasgelatik hasi eta etxetako sukalderraino helduko zen sexu-hezkuntza bultzatu nahi zuen. Asmo eta gogoeta horiekin etorri zen gurera.

### **Teoriatik praktikara Zer egin genuen?**

Sexualitatea modu integralean landuko zuen sexu-hezkuntza praktikan jarri nahi izan zuen haur horiekin. Helburua lortzeko, ikastetxean eta Sexologia Zerbitzuan elkarrekin aritu ginen lanean.

Sexuen teoriarik oinarrituriko sexu-hezkuntza lantzeko, askotariko bide eta tresnak erabili ziren. Kasu honetan, ipuinak izan ziren eraginkorrenak: ipuinen sorkuntza eta

erabilera. Gai asko jorratzen zituzten ipuinak egin zituzten; bateko jeloskortasuna, edota negar egitearen eta gaizki pasatzearen ingurukoak, besteko haurdunaldia eta haurraren jaiotza, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak, adopzioak eta familia desberdinak, gorputzeko kili-kiliak...

Haurrek sortutako ipuin motz eta sinpleak izan arren, oso baliagarriak izan ziren haur eta gurasoentzat. Gaiak landu ahala, haurren estutasuna apalduz joan zen.

Sexualitatea lantzeko asmo eta prozesua gurasoekin partekatu zen hasieratik. Jakinean zeuden haurrek ikasgelan sexualitatea landuko zutela eta etxean lantzeko materiala eramango zutela noiz edo noiz. Horren ondorioz, haurrek sortutako ipuinak etxetara heltzen zirenean, askok etxean osatzen jarraitu zuten. Ipuinak aitzakiatzat hartuta, familia-giroan sexualitateaz norberaren esperientziatik hitz egitea zuten helburu.

#### Lanketa puntuala edo estrategikoa?

Ikastetxe hartako esperientzia hark oso balorazio ona izan zuen arren, ez da nahikoa ikasgela batean saio bakar batean landutakoa, sexu-aniztasuna osasuntsu bizitzeko. Agian, gako garrantzitsua izan zen pasarte hori ikasgela horretako haur eta gurasoentzat. Baina ondoko ikasgelakoek edo hurrena etorri zirenek ez zuten horrelakorik izango. Horregatik, estrategikoki garrantzi handiagoa izan zuen, agian, lanketa horretatik eratorri zenak pasarte horrek berak baino.

#### Lanketa estrategia bilakatzen

Guraso eta hezitzaileok gizaki sexualizatzaileak gara. Haurra sexudun jaiotzen den arren, inguruarekin dituen harremanek zeharo baldintzatzen dute haurrak sexua bizitzeko duen modua. Bizitza osoa irauten duen sexualizatzeko prozesu horretan, ahalik eta hezkuntza kontzienteena gauzatu ahal izateko, guztiz eraginkorra da zuzenean haurrekin aritzen direnekin sexu-hezkuntza lantzea.

Aurrez kontatutako pasarte hori ez zen izan haur txikien sexu-hezkuntzarekiko kezka adierazten zuen bakarra. Zerbitzuan, askotxo ziren garai bertsuan kezka bera errepikatzen zuten aholku-eskaerak eta esku-hartzeak. Horregatik, gaiari heldu egin genion, eta herrian eraginkorrak izan zitez-



keen lanketa estrategikoa garatzen hasi ginen.

Helburu horri begira, bi hauek izan ziren landutako proiektu nagusiak:

- Haurrekin sexualitatea lantzeko ipuinen sorkuntza.
- Aisialdian sexu-hezkuntza trinkotzea.

#### 1. Haurrekin sexualitatea lantzeko ipuinen sorkuntza

Aspaldi ohartu ginen urria zela haurrekin sexualitatea lantzeko materiala. Eta ez zirela asko euskaraz sortutakoak. Hori kontuan hartuta eta hainbat eskaeraren ondorioz, Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuko sexu hezkuntzarako baliagarriak izango ziren ipuinak sortzea erabaki genuen.

Merkatuan daudenak aztertu ondoren, sexualitatea lantzeko ideien irizpideak hitzartu genituen, eta irizpide horiek ipuinetara eramateko urratsak egiten hasi ginen. Ipuinak hutsetik hasi genituen. Hori dela eta, ipuinak sortzeko, hainbat arlotan aritzen diren pertsonen osatutako talde bat eratu behar genuen: marrazkilaria, sexologo,

ipuin-kontalari, psikologo, irakasle eta diseinatzaileak, besteak beste.

Hainbat arlotako adituak proiektuaren helburua lortzeko ahaleginean aritu ginen. Aurrez hitzartutako ideiak eta edukiak haurrei modu ulergarri batean helaraztea zen talde haren helburua. Guztion elkarlanaren fruitu izan zen "Kili Kontuak" ipuin-bilduma, bi urteko elkarlan estuaren emaitza.

Sexu-hezkuntzarako tresna hura bitartekari izan zedin, 3-7 urte bitarteko haurrak biltzen ziren leku guztietan banatu genuen bildumatxoa: ikastetxeetan, haurtzaindegietan eta ludoteketan. Horrez gain, herri-tar ororentzat salgai jarri zen.

Ipuinetan landutako edukiak herriratzeko beste modu bat "Kili Kontuak" antzerki bihurtzea izan zen. Horretarako, harremanetan jarri ginen herriko antzezle batekin, Jon Zubiagarekin. Hura eta Sonia Villamor artista izan ziren "Kili Kontuak" herriko agertokietara eraman zutenak.

Elkarrekin aztertu genituen ipuinen edukiak. Horiek ardatz hartuta, antzezlanaren gidoia osatu zuten bi artistek. Gerora, gidoi horri bizia eman zioten Arrasateko



hainbat txokotan. Emanaldiek oso arrakasta handia izan zuten.

## 2. Aisialdian sexu-hezkuntza trinkotzea

Lehen aipatu dugunez, haur txikiekin sexu-hezkuntza lantzeko proiektuan murgildu ginen pasarte hartatik abiatuta. Aholkuak emateaz gain, sexu-hezkuntza lantzeko euskarri izan zitezkeen ipuinak sortzen ausartu ginen. Horrez gain, une hartako esku-hartze eta proiektuez haratagoko apustua egin nahi izan genuen. Herrian, sexu-hezkuntza estrategikoki lantzea erabaki genuen.

Horretarako, ez genituen aukeratu ikastetxeak, sexu-hezkuntzaren barnean ikastetxe bakoitzak bizi duen errealitatea oso desberdina baita. Ikastetxe bakoitzak osatzen duen hezkuntza-proiektuaren arabera izaten da hori, hots, ikastetxe bakoitzaren lehentasunen arabera.

Gainera, ikastetxeetan joera handiagoa dago sexualitatea haur txikiekin baino nagusiagoekin lantzeko. Horrek agerian uzten du sexualitateaz zer ideia dugun oraindik. Sexualitatea praktika gutxi batzuekin lotzen jarraitzen da, eta, praktika horiek gerturatu ahala, sexu-hezkuntza lantzen hasteko presara sortzen da. Oro har, praktika horiek sortzaketan arriskuei aurre egingo dien sexu-hezkuntzara mugatzen da hezkuntza for-

mala.

Lehentasunen hurrenkeran sexu-hezkuntzak pisua izan dezan, oso garrantzitsua da hezkuntza-proiektu horietan eragitea. Horretarako ere egin dira saiakerak. Hala ere, askotan eraginkorragoa izan daiteke haur eta gazteengan hezkuntza formaletik at dagoen hezkuntza. Horregatik, harremanetan jarri ginen Arrasaten hezkuntza ez-formalean hurrekin zuzenean lan egiten zuten eragileekin.

Horrela bada, Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzua eta Txatxilipurdi Aisialdi elkarteak sexu-hezkuntzaren inguruko hausnarketa-prozesu batean sartu ginen. Helburu garbi bat atera genuen: prozesu horretatik hezkuntza ez-formalean sexu-hezkuntza estrategikoki lantzea.

Besteak beste, Arrasateko hiru ludotekak koordinatzen ditu Txatxilipurdik, eta berorietatik hasia erabaki genuen. Sexuen teoriarik oinarrituriko hezkuntza bat praktikara eramateko saiakera egingo genuen berorietan. Hori horrela izan zedin, elkargune bat osatu genuen, ludotekako zazpi hezitzaileekin, haurren saileko koordinatzaileekin eta zerbitzuko sexologoekin.

Elkargune horretan, sexu-hezkuntzan ziztuzten kezkez, esku hartzeko moduez eta lanketa berriez gogoeta egin zuten. Horiek gauzatu egin ziren, eta esperientziak trukatu ziren. Horrez gain, zenbait egitasmo an-

tolatu ziren, une bakoitzean ludotekan eta kaleetan gatazka-iturri ziren edo pil-pilean zeuden gaiak zuzenean lantzeko. Horrela, partaideei sexu-hezkuntzarako ziztuzten baliabideak garatzeko aukera eskaintzen zien gunehonek.

Gune iraunkor horretatik abiatuta, ludoteketan sexu-hezkuntza sendotzea zen helburua; etorkizunean, aisialdiko hezitzaileek beren kabuz funtzionatzea, alegia, giza izate sexudunean oinarritutako hezkuntza burutzea. Poliki-poliki hezitzaileak ezagueraz eta baliabideez jantzi ahala, taldea bere funtzioa galduz joango zen. Beren kabuz moldatzeko gai sentitzen zirenean, elkargunea bertan behera uztea zen asmoa. Hortik aurrera, kasu zehatzetan soilik eskainiko zuten aholkularitza Sexologia Zerbitzuak.

Lehen urtean, taldea hilero elkartzen zen. 2008an hasi ziren biltzen, eta oraindik ere biltzen dira, horren maiz ez bada ere. Hezitzaileek sexu-hezkuntzarako osatutako zehar-lerroa gero eta indartsuago bihurtu du hainbat urtetako lanketa horrek. Eta trataera interesgarria eman zaio sexualitateari haurren aisialdian. •

*\*EHUk antolatutako "Hezitzaileentzat giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza mintegia"-n aurkeztu zuten txosten bari Larraitze Arandok.*

# Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidaliezazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

**aldizkaria@hikhasi.com** helbidera bidali



## 4. **Hazi Hezi** kalean da: urtea egin du. Zurekin eta zuri esker jarraituko du.



**Egin zaitez harpidedun!**

**Hazi Hezi** etxerako heziketa aldizkariaren lau zenbaki etxean jaso ditzakezu, 20 euroren truke\*

**943 371 408**

**www.hikhasi.com**

\*hik hasi-ren harpidedunek prezio berezia daukate



# galdeidazue

## Haur eta gazteen kale-erabileraren datuek zer diote haien hizkuntza-ohiturei buruz?



Urte asko dira euskararen normalizazioan erabilerari begira jarrita gaudela. Marie Darrieussecq-en *Herria* eleberriko testu honen bidez, garbi irudika dezakegu xedea zein izan daitekeen:

*“Kafea hustasunean edaten ari naiz. Inguru-ko jendeari begira nago. Guztiek ezin normalago dirudite. Inor ez daukat begira, inork ez dit hitz egiten. Ele zabarra bizirik dago. Ez da erabat armatua iriteten irakasle militante baten abotik. Ez du abeslari folkloriko batek artikulatzen. Ez da poesia. Ez da sorteriaren kontserbatorioa, ezta familien erlikioitzia ere. Axolagabeki abotik abora dabil. Ahoak ireki eta itxi. Kafe edaleak elkarri hizketan ari dira. Elkarri esateko gauzak dantz-kate. Gauza boriek garraiatzen dituen jarria hara eta bona dabil, ematen du inor ez dela horretaz ohartu... irten, puztu, loditu... hizkuntza erabilgarria da”.*

Lerro horien bidez, euskararen normalizazioan helburua zein den irudikatu dezakegu: hizkuntza erabilgarria izatea. Istorio horretako tabernan bezala, guk ere, inguruko taberna eta beste toki guztietan, euskara ahotik ahora axolagabeki ibiltzea nahiko genuke.



**Miren LOINAZ GARATE**  
URTXINTXA ESKOLA

Hizkuntza erabilgarria izatea edo, hobe esanda, hiztunek hizkuntza erabilgarri egitea. Baina errealitatea kafetegiko egoera bezain polita ote?

Literatura eta zenbakiak uztartzea zail egin zaie askori usu. Soziolinguistika Klusterrak 2011n Euskal Herri osoan egindako Kale Erabileraren Neurketak ere uztartze hori ez dagoela hain gertu egiaztatzeko aukera eman digu. Adin-tarte guztietan egon dira aldaketa aipagarriak, baina haur eta



**Izaro SUSPERREGI OLAIZOLA**  
URTXINTXA ESKOLA

gazteen esparruei helduko diegu nagusiki, bi horietan jazotako aldaketak ulertzeko, batzuetan, gainerako adin-tarteak aipatzea ezinbestekoa den arren.

### Datu orokorrak

Haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, bai Euskal Herrian eta baita lurraldez lurralde ere. Haurrek gazteek baino gehiago eta gazteek helduek baino gehiago. Neurketen arabera, gainera, adine-



an aurrera egin ahala euskararen erabilera gutxitzeko joera hori gero eta nabariagoa da urtetik urtera. Duela hogeitau urte inguru (lehen neurketako datuak 1989koak dira) ez zen horrelako fenomenorik ematen. Egia da euskara gehien erabili izan dutenak haurrak izan direla, baina 1989an, esaterako, adinekoena zen euskara gehien erabiltzen zuten bigarren adin-taldea (% 13,7), eta helduek ere gazteek baino gehiago erabiltzen zuten.

Datuak aztertzen jarraitzen badugu, Euskal Herrian azken bost urteetan haurren erabilera ez dela igo ikus daiteke, 2006an % 19,7koa baitzen, eta, azken neurketakoa, aldiz, % 19,2koa.

Orain arte, neurketaz neurketa puntu bateko igoera izaten zen, baina azken honetan ez da halakorik gertatu. Are gehiago, puntu erdi bat jaitsi da. Eta gazteen erabilerrari dagokionez, 2006an ez zela igo ikusi zen, eta, oraingoan, joera hori baieztatu egin da. 10 urtean ez da aldaketarik egon, eta datuak berdina izaten jarraitzen du (% 13,4).

Goiko datuetan ikus dezakegu bi adin-tarte horietan gertatzen ari zen gorakada geldiuene batera iritsi dela, eta lehengo zenbakie eutsi arren, igoerarik ez dagoela.

Haur eta gazteen erabileraren emaitzei

lurraldez lurralde behatuz gero, daturik baikorrenak Ipar Euskal Herrikoak eta Gipuzkoakoak direla esan daiteke, modu nabarian lehenengoan (haurren artean 2,8 puntuko igoera, eta gazteen artean 2,7koa), eta era xumeagoan bigarrenagoan (haurren artean 0,2 puntuko, eta gazteen artean 2,7koa).

Ipar Euskal Herriko datuei aipamen berezia egin nahi diegu. Izan ere, datu orokorra 0,2 puntu besterik igo ez bada ere, haur eta gazteen arteko erabilera ia 3 puntu igo da. Lurralde horretan azken urteetan izan den igoera nabaria 70eko hamarkadan ereindako hazien uzta dela uste dugu. Hegoaldean, duela 30 bat urte hasi zen loraldia, eta badirudi iparraldeko fruituak orain ari gabela jasotzen. Dena den, hurrengo neurketaldira arte itxaron beharko genuke, gorakada hori hegoaldean garai batean izan zena berdina izango den ikusteko.

Daturik kezagarrienak, aldiz, Araban, Nafarroan eta Bizkaian ditugu. Lehenengo bi lurraldeen kasuan, jaitsiera ikus daiteke, apala haurren kasuan (% 0,3 bietan), eta apur bat nabariagoa gazteen artean (% 0,9 Araban, eta % 0,6 Nafarroan). Dena den, daturik asaldagarrienak hirugarren lurraldekoak direla uste dugu, Bizkaikoak hain zuzen. Ehunekoei begiratu gero, behera-

kada hain handia ez dela pentsa genezake, 2,1 puntu haurren artean (2,3 puntu, duela 10 urteko datuekin konparatuta), eta 0,3 puntuko igoera gazteen artean (alabaina, 1,6 puntuko jaitsiera, duela 10 urteko datuekin alderatuta). Ez dugu ahaztu behar, ordea, Bizkaia dela populazio handiena duen lurraldea, biztanleriaren % 40 ia lurralde horretan bizi dela; beraz, ehunekoen jaitsiera gainerako lurraldeen antzekoa bada ere, hiztun-kopuruaren beherakada bortitzagoa da Bizkaian.

Neurketaren beste alderdi garrantzitsu bat hiztunen ezagutza-tipologiari dagokio. Ezagutza mailarik altuena dutenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, bai haurren eta baita gazteen artean ere. Ezagutza maila % 50etik gorakoa dutenei buruzko erabilera-datuek ez dute kasik beherakadarik jasan neurketak egin diren aldi guztietan. Gure iritziz, ezagutza mailak ez ezik, ezagutza motak ere zerikusia du. Beste hitz batzuetan esanda, hizkuntzaren ezagutza maila % 50etik beherakoa dutenek hizkuntza erabiltzeko unean ere zailtasun handiak izango dituzte. Ez dira eroso sentituko menperatzen ez duten hizkuntzan mintzatzen, hizkuntza horrek ez die balioko nahi duten guztia nahi duten moduan esateko, eta, beraz, erabili ere gutxiago erabiliko dute. Horretaz gain, jakina da haur eta gazte askorentzat eskola dela euskara erabiltzen duten eremu bakarra, eta, askotan, eskolan ikasitako hizkuntza kalean erabiltzeko formalegia edo ez oso erabilgarria suerta daiteke. Horren ondorioz, era informalean (kalean, lagunekin, jolasean...) erabiliko duten hizkuntza, euskara baino gehiago menperatzen duten beste hizkuntza bat izango da.

Datu orokorrekin amaitzeko, soilik azken hamarkadan neurtu den faktore bati erreferentzia egin nahi genioke. Erabilera-datuek diote euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen ehunekoa 3,7koa dela Euskal Herrian, duela bost urte baino % 1,1 handiagoa. Igoera hori egungo jendarte eleanitzaren erakusle dela uste dugu. Orain arte elebitasunari buruz mintzatzen aritu bagara ere, azken hamarkadan beste hizkuntzek izandako gorakadak, gaztelania eta frantsesaz gain, euskarak beste lehiakide batzuk ere badituera erakusten du. Eta lehiakide diogu, ez irabazle edo galtzaileen artean bereizi nahi dugulako, aukera-

tzeko zenbat eta hizkuntza gehiago izan, euskara hautatzeko aukerak murriztu egiten direlako baizik.

### Hiriburuak

Behin datu orokorrak ikusita, ezinbesteko deritzogu hiriburuetakotatik erreparratzeari. Soilik Hegoaldeko datuak ditugu eskura, eta, beraz, ezin dugu esan Euskal Herri osoan gertatzen ari denari buruz mintzo garenik, baina erabilerak izan duen bilakaerari begira, daturik kezagarrienak hiriburuetakotatik direla esan dezakegu ez bairik gabe. Ez dago hiribururik non haurren erabilera-datuak gora egin duen, eta, gazteen kasuan, Iruñean eta Bilbon gertatutako igotza apala Gasteiz eta Donostiako jaitsiera nabarmenak zokoratzen du.

Nafarroako hiriburuan datuek oso antzekoak izaten jarraitzen dute, eta gazteen kasuan igotza txiki bat nabari den arren (0,4 puntu), duela hamar urte baino beherago daude zenbakiak.

Bilbon, haurren datuek beheranzko norabideari eusten diote, eta azken bost urteetan beherakada hori 1,5 puntukoak izan bada ere, oraingo datuak duela hamar urtekoak baino 2,6 puntu beherago daude.

Gasteizen ere jaitsiera gertatu da: 0,5 puntukoak haurrei dagokienez, eta 1,1 puntukoak gazteei dagokienez. Dena den, esan behar da Arabako hiriburuko datuak duela hamar urtekoak baino hobeak direla oraindik.

Azkenik, Donostia ekarri behar dugu paperera. Izan ere, garrantzitsua iruditu zaitzugu hango datuek izandako bilakaera. Bazirudien duela bost urtera arte etengabe eta abiada ikaragarrian goraka zihuan suzuria zela Donostian euskara erabiltzen zuten hiztunen kopurua. Baina, behin lehertuta, abiada berean hasi da beherakada, eta 2006an baino 5,1 puntu beherago dago zenbakia.

Hiriburuetakotatik egoera arduragarriak, ordea, beste alderdi baikor baterako bide ematen digu. Orokorrean, erabilerak bere horretan jarraitu badu, edo oso gutxi jaitsi bada, hiriburuak ez diren beste eremuetako erabilera-datuak igo egin diren seinale.

Baina zer dela eta hiriburu eta herri txikiagoen arteko desberdintasun hori, leku guztietan jarraitutako hizkuntza-politikak

berdinak badira? Deitu topiko, deitu aurreiritzi, uste dugu bizitzako alor askotan apurtu ditugun edo apurtzeko bidean diren ideia askoren patua ez dela oraindik zabaldu hizkuntzaren eremura. Ohitura zaharkituei jarraiki bizi diren herri txikietan euskara hiri handietan baino errotuago dagoen usteak bultzatuta, badira hizkuntzak hiriburu aurrerakoi eta modernoan irudia zatartuko duen beldurra dutenak ere. Euskarak hizkuntza zaharkituaren kutsua du oraindik, eta hiriburuetan datuek izandako beherakada horren ondorio izan daitekeela uste dugu.

Horrekin batera, kale-erabilera altua duten herri txikietan kanpotarrek euskara erabiltzeko hautua egitea, kale-erabilera baxua duten hiriburuetan hautu bera egitea baino errazagoa dela nabarmendu behar dugu. Euskara ikasi eta erabiltzeko motibazioa, integratzailea zein instrumentala, handiagoa da lehenengoen kasuan, Arkaitz Zarrazak idatzitako hitz hauetan ikus dezakegunez:

“...hiztun-taldearen partaide izateko edo partaideen antza hartzeko nahia dago. Sarritan sentimendu identitarioak bultzatuta, motibazio integratzailea duen hiztunak hizkuntza ikasteko edo erabiltzeko berezko motibazioa izaten du. Motibazio instrumentala, duenak, berriz, hizkuntza helburu jakin bat lortzeko baliatzea bilatzen du. Horrela, hizkuntzaren bitartez talde horretako partaideekin tratu komertzialak egitea, lantokian gora egitea, diru gehiago irabaztea... motibazio instrumentalaren adibide garbiak dira. Hizkuntza arrakastarekin, bizikaltatearekin, gizartean gora egiteko aukerarekin eta abarrekin lotzeko motibazio instrumentala eragingo du”.

### Haurren presentziaren araberako datuak

Orain arte ikusi ditugun datuak kale-erabilerari dagozkionak izan dira oro har; hau da, soilik hiztunek euskara erabiltzea kontuan hartzen duen neurketari dagozkion datuak dira, non, noizekin, zertarako eta beste hainbat aldagai kontuan hartu gabe. Duela bost urteko txostenean, haurren presentziaren araberako erabilera ere neurtzen hasi ziren. Gure ustez, neurketa horrek berebiziko garrantzia du, azken batean,

**Datuek erakusten digute nagusiek euskara hautatzen dutela transmisio-hizkuntza gisa, hau da, hurrengo belaundaldiekin zein hizkuntzan komunikatuko diren aukeratzeko orduan, euskararen aldeko apustua egiten dutela**



adin-tarte desberdinek hitzak zein hizkuntzatan trukatzeko dituzten erakustetako bildutako datu bakarretakoa baita.

Datuek diotenez, nahiz eta haurrak eta nagusiak elkarrekin egon, adin-tarte bereko pertsonen hitz egiteko orduan, euskara gero eta gutxiago erabiltzen da, bai haurren artean eta baita nagusien artean ere. Are gehiago, lurralde guztietan beherakada doan kopurua dela ikus daiteke, salbuespenak salbuespen (Gipuzkoan, nagusien erabilera 1,5 puntu igo da).

Haurrak eta nagusiak elkarrekin daudden uneetan, orokorrean eta hartzailaren adin-tarteari erreparatu gabe, bai haurrek eta bai nagusiek euskara gero eta gehiago erabiltzen dutela ikus daiteke, Bizkaian izan ezik, non datuak 1,5 puntuko beherakada jasan duen. Daturik azpimarragarrienak haurrek helduei hitz egiten dietenean –eta alderantziz– jasotakoak dira. Haurrek nagusiei hitz egiten dietenean gora egin duten datuak eta behera egin dutenak aurki ditza-kegu, baina gorakadak puntu gehiagokoak izan dira. Hizlariak nagusiak direnean, aldiz, erabilera-datu guztiek gora egin dutela ikus dezakegu, eta oso gorakada deigarriak dira hainbat kasutan (Gipuzkoan 6,4 puntu, eta 6,2 Iparraldean).

Datu horiek guztiek erakusten digute –edo guk, behinik behin, horrela ulertzen dugu– nagusiek euskara hautatzen dutela

transmisio-hizkuntza gisa, hau da, hurrengo belaunaldiekin zein hizkuntzatan komunikatuko diren aukeratzeko orduan, euskararen aldeko apustua egiten dutela. Baina ez gara konturatzen *transmisio* terminoak hartzen duen dimentsioaz. Haurrei hitz egitean zuzeneko transmisioa egiten dugu, baina gainerako pertsoneri edo gure adinkideei hitz egiten diegunean ere inguruko haurrei zeharka transmititzen ari gara. Beraiei zuzentzen ez bagatzaizkie ere, helduon hizkuntza-erabilerarekin lotutako ohiturak zein diren jasotzen dute inguruan ikusten dituzten jokabideetatik, eta zeharkako mezu horiek eragina dute etorkizunean euskara erabiliko duten edo ez erabakitzeko orduan. Horrek guztiak hausnarketarako atea irekitzen digu: euskara haur hizkuntza bihurtu dugu? Euskara haurrekin soilik erabiltzeko hizkuntzatat dugu? Zertarako egin familian zuzeneko transmisioa euskaraz, nagusiok erabiliko ez dugun hizkuntza bada? Zer helbururekin hartzen dugu haurrei euskaraz hitz egiteko erabakia?

### Goia jo dugu?

Euskararen erabilera geldione batera iritsi dela esan dezakegu, beraz. Baina zer da egiaz datuen izozte horrek erakusten diguna? Egonkortasunera iritsi garela erakusten diguten datuak dira, ala goia jo dugula eta behearazko bideari ekin diogula aurreikusen dutenak?

Bada fisikaren arloan lege bat, handitzen edo hazten ez den guztia txikitu egiten dela esaten duena. Esaldi hori soziolinguistikaren arloaren barnean ere aplikatu dezakegu, bizi dugun egoera deskribatzeko, behintzat, baliagarria baita. Hiriburuetako datuak ikustea besterik ez dago, lehen hazten ari zena orain abiadura berean txikitzen ari dela egiaztatzeko. Agian goizegi da hain ondorio beltzak, edo grisak behinik behin, ateratzeko, baina ez dugu uste goizegi denik euskararen erabilera-datuak buelta eman eta lehengo goranzko bidean jarri nahi baditugu, berrikuntza behar dugula proposatzeko.

Behin puntu honetara iritsita, etorkizunari begira zer? Orain arte egin den lana oso baliagarria izan da eta bere fruituak eman ditu, baina gauza berriak egin beharrean gaude. Teknologiaren arloan zenbait urte daromatragu berrikuntza kontzeptua entzuten,

eta dagoeneko gizarte-gaietara ere iritsia zaigu. Terminoa geureratu eta hizkuntza-normalizazioko kontuetan txertatzea abiapuntu interesgarria litzateke. Hizkuntza-berrikuntza izan daiteke hurrengo urteetarako ildo. Berrikuntza zertan, baina? Honako hauetan behar bada:

1.- Haur eta gazteak euskara gehien erabiltzen dutenak direlako etorkizunean heldu bilakatzean ere euskara erabiliko dutela pentsatzeak bere mugak dituela uste dugu. Duela hogeitau urteko haurren datuak eta gaur egungo helduenak begiratu besterik ez dago egungo haur eta gazteak etorkizuneko hiztun, beraien erabilera-ohiturekin, bilakatu ez direla ikusteko.

Badirudi adinean gora egin ahala erabileran behera egiten dugula. Nerabezaroan erdara erabiltzen hasteko joera oso zabaldua dago, eta beherakadarik handiena haurren eta gazteen datuak konparatuz nabari dena da. Gainerako adin-aldaketetan ere murritzeta ikus daiteke, baina lehengo bien artekoari garrantzi berezia eman beharko litzaikeela uste dugu. Orain arte ez daukagu datu zehatzik, baina hizkuntza-aldaketa horren atzean zer dagoen ikertzea baliagarria izan daiteke aldaketaren gakoak argitzeko. Zentzu horretan, interesgarria suerta daiteke Joan Pujolarrek “*Lengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*” ikerketan mudantza eta hibridazioei (Pujolarrek *mudes* eta *hibridació* deritzena) buruz dioena. Izan ere, euskarari dagokionez, hizkuntza-ohituren aldaketen zergatia aztertze hainbat ikerlan egin dira, baina Pujolarrek katalanarekin egin duen bezala, interesgarria litzateke gazteen ohitura eta bizitzako une esanguratsuei buruzko ikerketa sakonagoa egitea. Hizkuntza-ohituren aldaketak gertatzen diren une horiek identifikatuz gero, hizkuntza-normalizazioan lanean dihardugun eragileok errazago asmatuko genuke gure jarduna kokatzen.

2.- Euskara gehiago erabiltzen da eremu formalean eremu informalean baino, eta zerikusi zuzena du horrek hasieran aipatu dugun erabilgarritasunarekin. Erabilgarria diogunean, edozein une eta kontutarako baliagarria zaigun hizkuntza bat erabiltzeaz ari gara. Lanerako, oposaketak prestatzeko edo akta bat egiteko erabiltzen dugun hizkuntzaz ari gara, jakina. Baina baita lane-

an gauzak okertzen ari direla esateko biko-teari, oposaketak gainditu ditugula koadrilan ospatzeko, eta akta sinatzeko bolaluma ez dabilela jakinarazteko ere.

Aurretik datorren joera dugu, baina ez atzera eta ez aurrera gauden puntura iritsita, alarma pizteko garaia da. Hizkuntzaren ezagutza, euskara jakitea, hein batean erdie-tsi dugun lorpena da, baina bizitzako eremu jakin batzuetan soilik erabiltzeko hizkuntzatat jotzen da askotan. Eta hori ez da hizkuntza bat erabilgarria izatea.

Euskararen alderdi ez-formala eskuratzeko modua familia zen garaia atzean gelditu dira, eta beharrezkotzat jotzen dugu hutsune hori betetzeko bide berriei ekitea.

3.- Ezagutzaren eta erabileraren kontzeptuetan murgildurik egon gara orain arte, baina bada aipatu besterik egin ez dugun beste bat: motibazioa. Zerk bultzatzen gaitu euskara erabiltzera, edo bederen, erabili nahizatera? Begirada guztien gune dira hizkuntza eta hiztun-komunitatea, baina hiztuna bere horretan bigarren maila batean dagoela dirudi, alegia, hizkuntzaren ikuspegi psikologikoa ez dela izan horren entzute-tsua. Zarragak bere lanean dioten moduan, “... Irrikak, nahiak, iritziak, motibazioak eta abarrak psikologiari dagozkion adarrak dira. Horiek bizitzaren aurrean, eta kasu honetan hizkuntzaren aurrean, jarduteko joera jakinak izatea eragiten dute, jarrerak, hain zuzen. Jarrerak jokamoldea bideratuko dute. Hizkuntzaren aldeko jarrerak erabileran, ikas-prozesuan zein inguruan jarduteko moduan eragin zuzena izango dute.”

Norbanakoa aintzat hartu eta pertsonen bizipen, sentipen eta emozioei erreparatzeko orain arte gutxi arakatutako esparruetara atea irekiko liguken. Izan ere, inguratzen gaituen jendarteak eragin handia izan arren, hizkuntzarekiko azken hautuak egiten ditugunak norbanakoak gara.

Beste bost urte itxaron beharko ditugu euskara gure kaleetan hasieran aipatutako kafetegian bezain erabilgarria den jakiteko. Irakurle bakoitzak hausnar dezala non eta zertan eragin dezakeen. Bien bitartean, gu ez gara kafetegian ka fea edaten duten ikusle hutsak izango.

\**Testu honen jatorrizkoa BAT Soziolinguistika aldizkariaren 84. zenbakian argitaratu da.*

# argitalpenak



## Behinola

26. zenbakia

GALTZAGORRI

Hainbat eduki dakartza *Behinola*-ren zenbaki berriak: Miel Elustondok haur eta gazte literaturan pertsonaia jakin batzuen inguruan sortu eta argitaratu izan diren liburuen serie ezberdinen errepasoa egin du, Kontuari Kontu jolas literarioaren ezaugarriak azaldu ditu Itziar Zubizarretak, Juan Kruz Igerabideren ipuin bat... •



## Timuti jirafa

Begoña Ibarrola / Viví Escrivá

ELKAR

Timuti jirafak lagun gutxi zuen sabanan, burutik behera begiraten zielako denei eta mesprexuz tratatzen zituelako. Animaliak Timutirengandik aparte ibiltzen ziren, berari ez entzutearren. Timutik burla egiten zien, harik eta egun batean... Gaitzespenari buruzko ipuin bat da, eta Miren Agur Meabek euskaratu du. •



## Ihesaldia

Andreas Schlüter / Irene Margil

IBAIZABAL

Bost lagunek ez dute Grünheim-en, beren aurkari handien hirian, egingo den bizikleta-lasterketa galdu nahi. Eta ez dago zantalzarik talde gisa aurkeztuko direla. Baina, une horretan, ikuskatzaile profesional batzuek Yabaliri erreparatu diote. Oso bizikleta garestia eskaintzen diote, eta entrenatzeko baldintza ezinhobeak, eta... bitamina-pilula batzuk. •



## Txikitzen zaretenean

Uxue Alberdi / Aitziber Akerreta

PAMIELA

Umek haztean aurkituko duten mundua nolako den kontatu beharrean, kontakizun honek hankaz gora jartzen ditu narrazioa eta irakurleen paperak. Gurasoei eta pertsona helduei kontatzeko ipuina da, eta haurren ikuspegitik kontatzen du nolako izango den gurasoak txikitzen direnean aurkituko duten mundua. •



## X-Zatiketak bidertuz

Mariasun Landa / Maite Gurrutxaga

LUUL

Haur nahiz helduei zuzendua, ipuinak familia erreal baten bizipenak dakartzkigu lau hizkuntzatan. Istorioari darion ukitu hunkigarriak bultzaturik, eta bertako hainbat eszenatan aurkituko dituen elementu, pertsonaia eta jokoekin garatzeko eragin-trukaketarako aukera anitzek hasiera-hasieratik lotuko dute irakurlea kontakizunaren mamiarekin. •



## Urdin txiki eta hori txiki

Leo Lionni

PAMIELA

Egun batean Ama Urdin erosketak egitera atera zen. "Geratu etxean", esan zion Urdin Txikiri. Baina Urdin Txiki Hori Txikiren bila joan zen. Kaleaz bestaldeko etxean ez zegoen inor, ordea. Alde batera begiratu zuen, eta bestera eta alde guztietara, harik eta, bat-batean, izkina pasata, Hori Txiki aurkitu zuen arte! •

# ... nora joango gara?

## BEIZAMAKO ATERPETXEA Ingurumena bizi

**Lotarako aterpetxe bat baino gehiago da Beizamakoa; ingurumen-zentro bat da, “gizarte zuzenago eta iraunkorrago baten alde lan egiten duena”.**

Gipuzkoaren bihotz-bihotzean kokaturik, basoz eta zelaiz inguraturik dago Beizamako herria. Tradizionalki, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak izan ditu euskarri ekonomiko, eta gaur egun, tradizio horren sustairari eutsi eta landa-turismoa edo ekoturismoa sustatzen dihardu, hau da, bestelako aisialdi eta turismo-eredu bat.

Beizamako herrigunean dago aterpetxea, eta iragan abenduan berriro atekak zabaldu ditu, eskola, familia edo lagun-taldeen zentratu ingurumen-heziketarako aukerak eskaintzeko. Natura eta ingurunea errespetatzen duen hezkuntza-eredua sustatzen du. Bertatik abiatuta, ingurune nanturaletara egiten diren bidaiak arduratsuak izan daitezken lan egiten dute aterpetxearen arduradunek, eta, ekoturismoaren filosofiarekin bat eginik, ingurumena zaintzea eta bertako biztanleen ongizatea hobetzen laguntzea du helburu.

Aterpetxe barruan zein kanpoan ingurunearekin harremanetan jartzen laguntzen duten dinamikak proposatzen ditu aterpetxeak. Talde dinamiketan ingurunearekin ondo pasatzeko, berau ezagutzeko eta bertatik ikasteko jolasak proposatzen dituzte; jolas parekideak, baloretan hezteko jolas kooperatiboak, euskal abesti eta dantzak, material birziklatuz eginko eskulanak






egiteko aukera, errezeta errazak...

Aterpetxeak herriarekin lotura handia dauka, herriarentzat eragile lagungarri bat izan nahi baitu. Helburu hori erdiesteko, Beizamako baserrietara bisitak egiten dituzte: herriko baserritarren lana balioan jartzzen dute bisita horiek. Baserritarra, elikagaiaren ekoizle izateaz gain, ingurumenaren, bioaniztasunaren eta paisaiaren zaindari gisa aurkezten dute aterpetxeko proposamenek. Bisita horietan baserritarren eguneroko lana ezagutzeko aukera dago eta elikagaiak nola ekoizten dituzten ere ikusi ahal izango dute bisitariek. Arreta baserrian, adibidez, Idoiak eta Patxik artzain gazta nola egiten duten ikus liteke; Urki Zahar baserrian, ostera, Luisjak txakolin ekologikoa egiteko mahastiak zaintzen ditu eta txakolinaren lantze-prozesua azaltzen die bisitarie; Urki baserrian Ionek eta Xabierrek askatasunean hazitako txerriak dauzkate; Leunda baserrian abeltzaintza mundua ezagutu liteke Ionen eskutik, limusin arrazako behi abeltzaintza egiten baitu baserrian; Aginondo baserrian ogi eta gailera ekologikoak egiten ditu Itxasok egur labean; Amenabar Goikoa baserriko Manuelek, aldiz, baratza ekologikoa dauka, eta inguruko kontsumotaldeetara banatzen ditu barazki-saskiak, eta baserria bera energetikoki elikatzeke gauza da.

Natura eta ondarea ezagutzeko bidaia gidatuak ere abaitzen ahal dira aterpetxetik. Beizamako zelai eta basoetan barrena, bidezidor eta nagusiagoetik, kultur, natura eta ondare elementuak ikusaraziko ditu bisitak gidatzen dituen hezitzaileak, ingurunearen balioa interpretatzen lagunduz. Ibilbideak maila eta iraupen ugariak dira, eta taldearen beharretara egokitzen dira.

Aterpetxeak familia giroko ostatu lasaia eskaintzen du talde handientzat nahiz familientzat. Aterpetxea garai bateko eskola zaharretako eraikinean dago, eta 3 solairutan, guztira 51 pertsonarentzako lekua dauka. Aterpetxeak menuak ere eskaintzen ditu, eta, gainera, menu horietako elikagai ekologikoen atzean dagoen bizitza azaltzen dute, bai nutrizio aldetik, baina baita kontsumo arduratsu eta eraldatzailearen ikuspegitik ere. Kontsumo arduratsua eta eraldatzailea sustatzen du Beizamako aterpetxeak, elikagaiak ekoizteko eta banatzeko baldintzak aintzat hartzen ditu. 

## BEIZAMAKO ATERPETXEA-INGURUGIRO ZENTROA

Eskola zaharra.

20739 Beizama (Gipuzkoa)

Tel.: 630181994

Web: [www.beizamakoaterpetxea.com](http://www.beizamakoaterpetxea.com)  
[beizamabiziaz@gmail.com](mailto:beizamabiziaz@gmail.com)



### KONPROMISOAK

- Aisiaz gozatzea, Beizamako ingurunean
- Gure herriak elikagaiak ekoizteko duen ahalmena erakustea
- Pertsonak balore zuzenago eta iraunkorragoak diren jokabideak hartzera motibatzen dituztenak
- Ingurumen eta ingurune sozialarekin errespetuzkoak izatea
- Osatzen dugun komunitatea indartzen laguntzea

### AZPIEGITURAK

Hiru solairutan, 51 pertsonarentzako lotarako lekua dauka.

- 1. go solairua: Bainugeladun 5 gela / 19 pertsona
  1. Agiña (4 plaza).
  2. Amenabar (2 plaza).
  3. Urdanpilleta (4 plaza).
  4. Illarraldea (4 plaza).
  5. Nuarbe (5 plaza).
- 2. solairua: Sukalde industrialia. Jangela: bazkari eta bazkalondoetarako espazioa (Wifi, telebista, mahai jokoak eta haur-txokoa). Bainugela eta garbitegia.
- 3. solairua: 32 pertsonentzako gela handia eta 2 bainugela.

### ARETO BALIOANIZTUNAK:

Erabilera anitzeko bi areto, 100 metro koadro ingurukoak

### ESKAINTZAK:

Beizamako baserrietara bisitak  
Natura eta ondarea ezagutzeko ibilaldi gidatuak  
Talde dinamikak, tailerrak eta jolasak  
Elikadura arduratsua



# atzeko atetik



**Castillo SUAREZ**

Idazlea

Autobusa ikastolara hurbiltzen ari zenean ikusi genuen koloretako karpa. Gure harridura pozarekin nahasi zen kirol pistan zirkoa muntatzen ari zirela jabetu ginenean. Geltokiaren parean animaliak edukitzeko kaiolak jarri zituzten. Eta elefanteak inoiz ikusitako animaliarik handienak iruditu zitzaizkigun. Ni ez nintzen ausartu gehiegi aurreratzea. Igor bai, ordea. Berokia buuruan jarrita eraman ohi zuen, kapa baten moduan, eta elefanteak tronparekin bero-

## Ebelina

kia hartu eta hozkada bat eman zion. Elefanteari ez zitzaion fundamentuzko elikagaia iruditu nonbait, eta berehala askatu zuen beroki hautsia. Errieta egin zioten etxera iritsi zenean. Hala ere, zirkorra joaten utzi zioten azkenean. Ni ahizpa txikia eta amarekin joan nintzen.

*Bateginik zirkoa* jartzen zuen afixetan. Artean ez genekien zer zen hura. Ez genekien ikastoletarako dirua biltzeko jarri zutela. Ez genekien Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta EKB diseinatutako kanpaina bat zela. 200 bat miloi pezeta bildu nahi zituztela Seaskako ikastoletarako, Zangoza eta Tuterako ikastoletarako eta euskararen defentsarako zerbitzu juridiko bat sortzeko. 1988a zen eta 12 urte nituen orduan. Gustukoa nuen irakurtzea, baina ezer ez nuen idazten agindutako ikasgaiez landa-

ra. 20 urte pasatu behar izan ziren ipuin bat idazten hasteko.

Garai hartan erabaki nuen trapezista izan nahi nuela. Trapeziotik ikusi nahi nituela gauza guztiak, alturak ematen dizun ziurtasunarekin. Amak ez zidan utzi, noski. Handik urte batzuetara idatzi nuen *Ebelina Mandarina* ipuina Altsasuko Iñigo Aritza ikastolara etorri zen zirko hura gogoan hartuta. Ebelinak trapezista izan nahi zuen, nik bezala, baina beldurra ematen zion alturak. Liburua ikastolan aurkeztu zen egunean aurretoko paretak Ebelinaren irudiez beteta zeunden. Zorretan nago ikastolarekin. Izan ere, han erakutsi zidaten irakurtzen eta idazten, eta, beraz, amets egiten. Zorretan nago andereño Idoiarekin. Berari pasatzen dizkiot nire ipuinen zirriborroak. Berak badaki nola iritsi bihotz barreneraino.



**“Zergatik liburuen, aldizkarien eta testu idatzi formalen orbitan jira-arazi behar da gazte-jendearentzako kultura-eskaintza gehiena, bestelako aukerak (ipuin eta txiste, antzezpen eta kantu, jendaurreko norgehiagoka eta abarrekoak) bigarren planora eramanez?”**

**MIKEL ZALBIDE**

# zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

## berrialaguna

Informazio eguneratua  
eta euskarri gehiago:  
[www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)

**berria**<sup>info</sup>

Honako ekarpen hau egin nahi diot  
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,  
G71006795 IFK duena:  
Aderazi X batez zure aukera

- |  |                                       |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Urtean 100 €                                    | <input type="checkbox"/> Urtean 200 € |
| Aldi batean <input type="checkbox"/>                                     | Aldi batean <input type="checkbox"/>  |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/>                                     | Lau zatitan <input type="checkbox"/>  |
| <input type="checkbox"/> Urtean beste kopuru bat: <input type="text"/> € |                                       |
| Aldi batean <input type="checkbox"/>                                     |                                       |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/>                                     |                                       |
| 100 eurotik beherako kopuruetan<br>ordainketa aldi batean egingo da      |                                       |
| <input type="checkbox"/> Hilean 10 €                                     |                                       |

Sinadura

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betarik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Irtze Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

**berrialaguna** izan nahi baduzu,  
bete datuak eta helarazi:

- [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** [laguna@berria.info](mailto:laguna@berria.info)
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

# Herri hezitzailea, eskola herritarra jardunaldiak



Maiatzaren 10ean eta 11n Donostian. Gonbidatu gisa, **Francesco TONUCCI** pedagogoa eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzaile italiarra izango da bi egunetan.

Euskal Herriko hainbat eskolatako eta herritako esperientziak aurkeztuko dira.

**Nori zuzendua:** irakasleei, hezitzaileei, Udaletako zinegotziei eta teknikariei (berdintasuna, euskara, lurralde antolamendua...) gurasoei, arkitektoei eta heziketan interesa duen edonori zuzendutako jardunaldiak dira.



Maiatzaren 10ean:

## Heziketa ardatz duen HERRIA

- Euskal Herriko testuingurua: Lorea AGIRRE.
- Haurren hiria: Francesco TONUCCI. "Haurren hiria" proiektuaren sortzailea.
- Euskal Herriko hainbat herritan egiten ari diren esperientzien aurkezpenak.

Maiatzaren 11n:

## Herrira begiratzen duen ESKOLA

- Hiri-ereduak hezkuntzan duen eragina: Koldo TELLERIA (*Hiria* kolektiboa).
- Guztientzako eskola: Francesco TONUCCI
- Euskal Herriko hainbat eskolatan egiten ari diren esperientzien aurkezpenak.



Informazioa eta izena emateko aukera zabalik dago

**www.hikhasi.com** helbidean